

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 15a / 573. zenbakia



## Zaldibarko txapelketa

Herriko futbolaren testigu

ORAIN ETA HEMEN: **LAPURRETAK/9** • JAIK: **ARATUSTEAK/10-11**



# Osasun Gida

## AKUPUNTURA...

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA ..

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ..... ☎ 943 77 05 57

## ERREUMATOLOGIA..

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA.

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ..... ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22 ..... ☎ 943 79 72 16
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. .... ☎ 670 52 19 34

## LOGOPEDIA...

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ..... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK..

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) . . . ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA...

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ..... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ..... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ..... ☎ 943 79 71 90
- GIPIZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ..... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ..... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA...

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ..... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ..... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA...

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ..... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK..

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA...

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... ☎ 659 58 66 89

## PSIKOLOGIA...

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ..... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga,10 ..... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA...

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ..... ☎ 943 79 44 22



# KALEINKESTA/ Zergaittik bota daue Huelvako abadie, gaya dalako ala zelibatue apurtziagaittik?



**ALBERTO ALONSO**  
Langillie



**LUISA VEGA**  
Langabetue



**RAFAEL DE LA CRUZ**  
Langillie



**LOLI AIASTUI**  
Langillie



**AINARA GARAI**  
Ikaslie



**MARINA CABALLERO**  
Langillie

Batez be, zelibatue apurtu dauela publikoki esan daue-lako. Homosexualidadiari ez dot uste inportantzia haundirik emun dutzienik, abadie ezkutuen danetik egingo dauelako.

Zelibatue beteten ez dauen abade asko dago, baiñe ez daue ezer esaten. Nik uste dot ondo dagoela Huelvako abadie publikoki esatie homosexuala dala eta zelibatue apurtu dauela.


Danek ezkontute egon biherko litzakez, sexualitatek ez leuke inportantziarik euki biher, abadie badie be, gizonak die-eta. Egin biher euen egin dau, baliente, gaiñera.

Neretako bere lana ondo egitten badau, egin daixela gure dauena, bai zelibatuakin baita bere sexualitatekin be. Ez daukie lanetik bota biherrik. Baiñe ondo egin dau hola esaten.

Nik uste dot abadie ondo egin dauela homosexuala dala-eta zelibatue apurtu dauela esaten. Baiñe harek daukon lana eukitte, abadien artien ondiokan hori ez dago ondo ikusitte.

Homosexuala dala publikoki esan dauelako. Mor-due egongo die, baiñe ez daue ezer esaten. Harek jakingo euen botako euela, baiñe hari bost, armaixotik urtetiarren....

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK KZ GUNEA HARRERA OSO ONA** Uarkapeko frontoian jarri duten Kz gunea harrera ezin hobea izan du. Are gehiago, irakurle batzuk gune horrek eskaintzen duen zerbitzua goraiatu egin dute. Zerbitzu horren bitartez, doanik, interneten inguruko kontuak ikasteko eta praktikatzeko aukera ei dauka edozein arrasatearrek, eta orain arte jende ugari hurbildu da Uarkaperaino.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /9

KIROLA /12

ZAHARRAK BERRI /17

### San Josepe harrobia

Udalak San Josepeko harrobia berreskuratzeko proiektuari behin-behineko onarpena eman dio.

### Asteburuan, pilota jaialdia

Zapatu arratsaldean, Binakako Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dira Uarkapen.

### Zaintzaile boluntarioak

Astlehenero, zenbait emakume laguntasuna ematen diete Iturbide egoitzako nagusiei.

## ASTEKODATUA

# 7

### LAPURRETA SALAKETA EGIN DIRA URTE HONETAN

Urte hasieratik hona, Arrasaten zazpi lapurreta eta bost lapurreta saiakera salatu dituzte Ertzain etxean. Lapurreta salaketak eta saiakera salaketak komertzioek eta enpresek egin dituzte.

## BESTEKE SANA

**“ Aita Menni Ospitaleko gerenteak ez ditu argitu nik laborerapiari buruz neuzkan zalantzak. Zalantza gehiago piztu dizkit. (...) Diozenez, Aita Menniko gaixo kronikoez ezin dute Gizarte Segurantzaren altarik hartu, duten gaixotasun mentalagatik. Hori hala bada eta ezinduta badaude, zer dela eta egiten dute lan laborerapiako tailerrean? (...) Jarduera hori terapiatzat definitzen duzue, ez lan bezala, eta gaixoez lan egiten dute, etekinak sortzen dituzte, ez dute lan-eskubiderik, eta ez dute ekoizpen kosturik eragiten. Ez dut ulertzen tailer horrek etekin ekonomikorik ez duela esatea (...) Ez dut uste inork behar guztiak aseta baditu, 24-125 euroen truke sei egun astean lan egiteko motibaziorik izango duenik”**

IGNACIO GORRIZ  
'GARA'/02-02-13

## HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



### Euskal Herritik Kaliforniara

**A**naaaaaaa!!!!!!! Ze moduz Frisco-n? Hemendik, betiko lez, urtia aurrera doia, ta fan zan astian, Emakume Kontseilluan martxuaren 8ko egitaraua prepartetan hasi gizen. Ta nik pentsetan dot... Ze pasetan da hemen abortuakin? Nereak bigarren umetxua gura euen, ta haurdun geldittu zanian amiozentesixa egin eutzen. Haurra ondo ez etorrela-ta, abortetia erabaki euen. Bere egoeria legalki onartuta egonda be, kristoren arazuak izan zittuen mediku, ospitale ta milla istorixokin. Ia ilegalki egin bihar izan euen, esperientzia bariko mediku bateaz. Zorionez ez euen abortau eta inolako problemarik ez daukon mutikotxo zoragarri baten ama da. Amiozentesixa gaizki egin eutzen. “Amio”-aren azken istorio hori hurrengo baten kontatuko dot, gaur ez da-ta “Jaungoikomedikuekin” sartzeko eguna. Martxuaren 8xa dator, ta gu, emakumiok, ze

gare? Pertsonak ala erditzeko makiñak? Hori da feminismoaren oiñarrixa ta hor ez dago erdiko negoziaziñorik.

Ameriketako Estatu Batuetatik ekologia, desobediencia zibilla, gay mugimendua, eta abar jaso dittugun moduan, -a! Ikastolako Kilometroak jaixaren idea ahaztu barik-, hango abortuaren legia be gudanatu biharko geunke. AEBtakuia edo nik nire gorputzakin nahi dotena egitteko eskubidia ematen dusten edozein herrialdetakuia bestela.

Abortu libriak existitzen dau eta legalki millaka emakume egiten daue. Hemen debekatuta daukogun eskubidia dala pentsetan dogunok ez gare estralurtarrak. Horregaittik geuri noiz eta zelan zer egin edo zer ez egin esaten duskue-nekin ez dago ezer negoziatzerik. Geure erabakixa da ta noizbait onartu bihar izango daue. Borrokak barriro hasi bihar dau.

ana...to be continued.

**“Martxuaren 8xa dator. Emakumiok, ze gare? Pertsonak ala erditzeko makiñak? Hori da feminismoaren oiñarrixa”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran  
ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
MAKETAZIOA  
Alex Azkarate  
ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza  
ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren  
LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88  
ISSN  
0214-4654  
TIRADA  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala



**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 15**  
Amezua, Santa Marina 32... 943 79 09 74
- ZAPATUA, 16**  
Zabala, Zarugalde 42... 943 77 16 30
- DOMEKA, 17**  
A.Ruiz, Maala 31... 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 18**  
S. Español, Araba etorb... 943 79 18 65
- MARTITZENA, 19**  
A. Azkoaga, Ferrerías 1... 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 20**  
M.F. Azkoaga, Iturriotz... 943 79 79 99
- EGUENA, 21**  
M. Corcuera, M. Aranbarri 1... 943 79 22 26

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea... 943 03 53 00  
Igalatorioa... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak... 943 79 39 00  
Emakumeak... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea... 943 79 90 11

- LARRIALDIK**  
SOS Deiak... 112  
Gurutze Gorria... 943 76 55 76  
DYA... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua... 943 46 11 11  
Astelohenetik  
egubakoitza... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa

- Arrasate**  
Astelohenetik  
egubakoitza... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
  - Medikuntza orok, eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak... 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak... 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate... 943 79 71 99

- SUHILTZALEAK**  
Udal taldea... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaleburua... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua)... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero)... 943 12 01 62  
Gasa... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak... 943 79 12 22  
PESA... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza... 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron... 943 77 01 05

**MEZAK**

- |  |   |
|--|---|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                       |
| Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)  | Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)                                     |
| Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | Domeka<br>10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)          |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)             |
| Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)  | Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)   |

**OHARRAK**

**AUTOMOBILEN GAINEKO ZERGA**  
Udalak automobilengaineko udal zerga ordaintzeko epea zabaldu du. Erreklamazioak egin edo ordaintzeko, Diru bilketako leihatilara jo beharko dute apirilaren 19a baino lehen. Epea igaroz gero, ordaindu ez dutenek %20ko gainkargua izango dute.

**ETXEBIZITZA BERBAGAI**  
Eguenean, 19:00etan, EBko koordinatzaile orokor eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko kontseilari Javier Madrazok eta EBko zinegotzi Joseba Ugaldek etxebizitza politikaren gainean egingo dute berba Monterronen.

**GOIKOBALUREN BATZARRA**  
Otsailaren 21ean, eguenean, 20:00etan, Goikobalu abesbatzaren batzarra izango da Gazteluondoko entsegu lokalean.

**BARATZA ETA FRUTA ARBOLAK**  
Ekin-ek eta Udaleko baserri-auzoetako alkatezantzak antolatuta, baratzaren eta fruta arbolengainean berbaldea egingo dute astelenean, 18:30ean, Uribarriko zahar etxean.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Trixie filma, eguenean, 21:30ean, Amaia Antzokian.

**AEDren AGENDA**

**ARRASATE LEHIAKETAK**  
Abian daude XV. Arrasate Lehiaketak. Ipuina, poesia, komikia, bertso-paperak, euskalki grabazioak eta irrati erreportajeak. AEDra bidali otsailaren 15a baino lehen.

**DEBAGUNEKO EGUTEGIAK**  
Debaguneko egutegiak salgai daude AEDn.

**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Garrasi Isila lehenengo aldiz Mondragoen**


Orain dela hamar urte, lehenengo aldiz egin zuen Garrasi Isila-Gesto por la Paz taldeak kale bilkura Arrasaten. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste zenbait herritan ere kale bilkurak egiten hasi ziren, hilketen kontrako jarrera jendaurrean adierazteko asmoarekin.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Petenadia"**

Ganadu ostikada (pluralean, batik bat).  
**Etim.:** Petain mariscal frantsesa, Munduko I. Gerratean famatu bihurtu zena.  
-Mekauben, orrek jaurtzen jittuk petenadak.



GORKA ORTEGA

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Antton Mendizabalek globalizazioa berbagai**

EHuko irakasle Antton Mendizabal izango da gurekin martitzenean, 10:00etatik aurrera. Brasilen izan da arrasatearra, Porto Alegreko Foroan, eta globalizazioaren gainean hausnartu dute, besteak beste.

Astelenean, berriz, etorkinen gainean egingo dugu berba, herrian geroago eta gehiago daude-eta. Martitzenean, berriz, merkatu txikiaren tartean, edo zer erosteko edo saltzeko modua izango duzue. Aurrez, dei egin 943711731 telefonora.

**Asier eta Mainerrekin munduan zehar**

Asier Cobos aretxabaletarrak eta Mainer Belategi arrasatearrak Irlandan hasi zuten bidaia orain dela ia lau urte, eta Australiara ere iritsi ziren. Bidaia horren nondik norakak jakin gura badituzue, aukera duzue zapatuan eta domekan, asteko elkarrizketen tartean. Bestalde, herrian izan diren lapurretak direla-eta, Idoia Etxagibel eta Olatz Azkarraga dendariekin izandako solasaldia berriro entzuteko aukera izango duzue.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Martitzena, 12	<b>1°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Martitzena, 12	<b>22°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>19 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	9°C	7°C	18,1 l/m²
Eguena, 7	12°C	5°C	0,9 l/m²
Egubakoitza, 8	18°C	8°C	- l/m²
Zapatua, 9	16°C	5°C	- l/m²
Domeka, 10	20°C	9°C	- l/m²
Astelena, 11	21°C	3°C	- l/m²
Martitzena, 12	22°C	1°C	- l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena

**ASTELEHENA**  
21:00 MIR

**MARTITZENA**  
21:00 Hi bizi hadi

**EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz  
22:00 Pottokatzen

**EGUENA**  
21:00 Mikelenea

**EGUBAKOITZA**  
20:00 Azkenberri.com  
21:00 Draxtor  
22:00 In session  
23:50 Asteko elkarrizketak

**ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Hitz eta Pitz (errep.)  
24:00 MIR (errep.)

**DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:00 Gailurretik



## ASTEABIHITZETAN

### MU eta MCC

Mondragon Unibertsitateak beste bazkide bat du: Kataluniako Ecotecnia kooperatiba. Harekin batera, Mondragon Unibertsitatea energia berriztagarrien inguruko proiektuak garatzen ari da. Bestalde, Mondragon Korporazio Kooperatiboak ATEGI izeneko webgunea plazaratu du Interneten. Taldeko kooperatibek behar dutena erosteko zerbitzua eskaintzea da webgunearen helburua.

### Tranbiaren gaineko iritziak

Eusko Jaurlaritzak Deba Ibarreko tranbia dela-eta bidalita-ko proiektuaren gainean, Arrasateko Udalak eskaera bat egin dio gobernuari: Arrasateren eta Elorregi auzoaren arteko zatian tranbiaren ibilbidea beste aldera eramatea, ezkerreko ibai ertzera, hain justu. Udalak gobernuari adierazi dio kontuan hartu behar dutela hiriartereko zatietan zein abiadura hartuko duen tranbiak, gaur egungo plataformaren zabalera, tranbiaren ibilbidea kokatuko den magalaren zailtasun orografikoa, ibilbidea egiteko zapuztuko den gunearen balore handia eta aurrez ikusita dagoen bide ez motorizatuen barruan sartu dutela tranbiaren ibilbidea. Horregatik guztiagatik eskatu dio aldaketa egitea.

### Gesalibarkoak jaietan

Jaiak ospatu zituzten asteburuan Gesalibar auzoan. Egubakoitzean hasi ziren suziri jaurtiketarekin, eta domeka izan zen azkeneko eguna. Hain justu ere, egubakoitzean, auzo afaria izan zuten Jentil Ola elkarteak, eta Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak izan zituzten gonbidatu moduan. Zapatuan, auzoko umeendako jolasak prestatu zituzten eta gauean, dantza egiteko aukera ere izan zuten Txinparta taldearekin; eta giro ederrean ospatu zituzten auzoko jaiak gesalibartarrek.



### PSE-EEren kontrako eraso gaitzetsi zuten

PSE-EEren egoitzak izandako erasoaren kontra bilkura egin zuten egunean alderdi politikoetako zenbait ordezkari. EAKo Gorka Knörr eta Iñaki Galdos, EAJko Itsaso Garai, EBko Joseba Ugalde, PPko Gonzalo Quiroga eta PSE-EEko Manuel Huertas eta Javier Rojo izan ziren bilkuran.



### USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Ezbeharrak


Aste honetan Iranen jazotako hegazkin istripuak izan du eragina gudan, bidaiarien tartean hemengo lau lagun hil direlako. Lau lagun horiek Fagor Arrasate enpresako partaideak ziren eta Iranen enpresa-bidai baten zeuden. Istripuak Iran barneko hegazkin bidai baten harrapatu zituen. Paradoxikoa badirudi ere,

azkenengo zazpi-zortzi hilabetetan hegazkin istripu asko gertatu dira, larregi. New York-en eta Washington-en gertatutako atentatuak eta egun berean AEBn era misteriotsuan jausi edo bota zuten hegazkina alde batera utzita, denbora laburrean, Italian, Errusian, Bizkaia aldean eta beste leku batzuetan hegazkin istripu larriak eman dira.

Iranen gertatutako istripua Errusian antzina egindako hegazkin batek izan du. Tamalez, zenbait garraio zerbitzutan ibilgailu zaharregiak erabiltzen dira eta gainera ibilgailu horien mantenua ez da izan beharko litzatekeen bezain zuhurra.

Bestalde, hegazkin istripuetatik bizirik irtetearia ezinezkoa izan eta kolpean bidaiari asko hiltzen badira ere, errepideetan hiltzen den jende kopurua ere itzela da.

## ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

### TEHERANEN GERTATU ZEN HEGAZKIN ISTRIPUAK BETE-BETEAN HARRAPATU ZUEN ARRASATE

Martitzenean, berri latz bat zabaldu zen. Iranen 117 bidaiari zeramatzan hegazkin bat jausi egin zen. Hegazkinean enpresa-bidaian zebiltzan Fagor Arrasate enpresako lau arduradun zihozen: Kalitate eta Ikerketa eta Garapenerako zuzendari Jesus Olabazalaga (hura Arrasaten bizi zen), Asiako ere-

muko zuzendari komertzial Julio Ibarra, Erosketa zuzendari Juan Carlos Goikoetxea eta Proiektu kudeatzaile Joseba Azkoaga. Samina zabaldu zen herrian, baita MCCn ere. Martitzen arratsaldean eta eguaztenean, Fagor Arrasatek Arrasate, Markinako eta Donostiako lantegiak itxi zituen. /I.B.

**M**  
**MEMESA**  
**Industria hornidurak**  
Tel. 943 71 24 25

**UGARAN**  
**jatetxea**  
Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

*Lore*  
• Lurrindegia  
• Kabina  
• Fotodepilazioa  
Olarke kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

**ASESORIA**  
**ARRASATE**  
• Juridikoa  
• Lan arloa  
• Fiskala  
• Bankinter finantza agentea  
Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00



**KIROLA/** Arrasateko areto futbol txapelketa garrantzitsuena, atzo eta gaur

# Zaldibarko areto futbol txapelketa: 1956tik 2002ra arte pilotalekuan bizi izandakoak

XABIER URZELAI

Urte asko egin behar dira atzera Zaldibarko areto futbol txapelketako lehenengo golak noiz egin ziren jakiteko. Txapelketa 1956an hasi ei zen, eta 80ko hamarkadan sei urte geldirik egon eta gero, 1990ean berriro hasi ziren jokatzeko, baina aldaketa askorekin.

Gaur egungo txapelketak antzekotasun gutxi dauka 50eko hamarkadan hasi zenarekin. Orduan, Zaldibarko pilotalekuan jokalaria gaztetxoek jokatzeko zuten; izan ere, Zaldibarko txapelketa UCEA eta Juventud Deportiva Mondragon futbol taldeen harrobi ezin hobea zen. UCEA desagertu zenean, Juventud Deportiva Mondragon (gerora Club de futbol Mondragon) taldeko batzordeak antolatu zuen Zaldibarko lehen areto futbol txapelketa.

Azken baten, egun Mondra bezala ezagutzen dugun taldearen harrobia zen Zaldibar, hortaz, argi dago gauzak dezente aldatu direla. Garai haietako jokalaria dira, besteak beste, Esperasate, Carabias, Errasti anaiak, Mercader, Jon Arriaran edo Ugalde.

Denborarekin, Juventud Deportiva Mondragon zeritzonak txapelketa alde batera utzi eta herriko koadrilek hartu zioten lekukoa. Garai hartan, koadriletako ordezkariak batzen ziren, eta urtero-urtero txapelketa antolatzen zuten. 80ko hamarkadan, batzuek gogoratzen dutenez, Zaldibarko areto futbol txapelketan 30 bat taldek hartzen zuten parte, eta, gutxi gorabehera, 400 bat lagun elkartzen ziren astebururo partiduak jokatzeko.

## SEI URTE GELDIRIK

Zaldibarko txapelketako garairik txarrenak 80ko hamarkadan



1960an Mondragón F.C taldeko zuzendaritza Batzordea Zaldibarreko Txapelketako finalean.

JESUS MORENO

*“Lehen, errespetu handiagoa izaten zen; gaur, denetarik ikus daiteke Zaldibarren”*

etorri ziren. 1984an, Zaldibarko areto futbol txapelketak etenaldia izan zuen, sortu zenetik gaur arte izan duen bakarra. Urte hartan, Arrasateko Udalak Zaldibarko pilotalekua berritzeko erabakia

*Futbol taldeendako harrobi ona izatetik herriko txapelketa izatera pasatu da Zaldibarkoa*

hartu zuen, eta, berritzeaz gain, pilotalekua idi-demak egiteko egokitu zuen. Berrikuntza harekin, argi zegoen Zaldibarko txapelketak ezin zuela aurrera egin. Hurrengo sei urteetan Zaldibar-

*Jokalaria, ikusle, herriko erakunde eta antolatzaileei esker dago txapelketa bizirik*

ko pilotalekuan ez zen areto futbolik izan, eta horren falta nabaria izan zen. Hutsune hori betetzeko eta gazteendako ekimen bat antolatzeko asmoz, Arrasateko Udaleko ordezkariak eta Zaldi-

barko txapelketan antolatze lanean ibilitakoak harremanetan jarri ziren. Horrela, lehenengo batzarrean Zaldibarko zortu berregokitzea erabaki zuten.

## TXAPELKETA BERRIRO ERE ABIAN

Hasierako antolatzaileek hartu zuten ardura txapelketa berriro antolatzeko, baina, hori bai, jende gehiagoren laguntzarekin.

Txapelketaren inguruko lehenengo albistea 1990eko urriaren 5eko ARRASATE PRESSen aurki daiteke. Aurreneko txapelketa hartan 60 taldek eman zuten izena, 900 bat lagun guztira. Eta lehenengo jardunaldia Jesus Moreno omentzeko aprobetxatu zuten, Arrasateko futbolaren alde egindako lan guztiagatik.

Orduko antolatzaileen buruhauste handienetakoa taldeen ordutegia betetzea zen, eta partidu guztiak Zaldibarren jokatzeko denborarik ez zegoenez, beste leku batzuk aukeratu behar izan zituzten antolatzaileek.

Azken hamarkadan, txapelketa horretan hainbat talde mitiko izan dira: batzuk, lortutako garaipenengatik, eta beste batzuk, kantxan egiten zuten erakustaldiengatik. Izenak ematea ez da lan erraza, eta talde batzuetako jokalaria haserretu ere egingo dira, hortaz, alde aurretik, barkamena. 1990-91n jokatu zen txapelketako finalera Bar Kajoi eta Adelaida taldeak iritsi ziren. Final hartan taldeen kiroltasuna izan zen azpimarragarriena; izan ere, partiduan, ikusgarritasuna baino arago, emozioa izan zen nagusi. Azkenean, Adelaidak irabazi zuen.

Hurrengo urteko txapelketan Zaldibarko talde handienetakoa bat nagusitu zen: Argi Ibili. Urte hartan, 72 taldek eman zuten izena, baina bi taldek gura baino lehenago amaitu zuten txapelketa: Bar Kajoi, aurreko urteko fina-







Zaldibarko txapelketa hainbat koadrila batzeko aitzakia bikaina izan da. Argazkian, Argi Ibili, Los Heredia, Etxerat, Komando Alpagat, Irati STS eta Aldibi taldeak.

lista, eta Fosforos taldeak kanporatu egin zituzten, partidu baten muturrekoka ibiltzeagatik. Horrekin batera, Fosforos taldeak ez zuten inoiz txapelketa irabazi, baina talde esanguratsuenen artean sartu behar dugu. Txapelketari gatzat jartzen zion talde horietakoa zen; joko ikusgarria bezain gogorra egiten zuten talde hark; batzuek maite, besteek gorroto, baina askotan haien portaera ez zen eredugarri izaten. Hurrengo

urtean, Zuloak eta Trikiti taldeek jokatu zuten finala, eta Trikiti nagusitu zen (4-0). Urte hartan, beste futbito txapelketa bat sortu zen, Iturripekkoa. Txapelketa hura Zaldibarko lehen fasea amaitzen zenean hasten zen, eta, hala, Zaldibarko txapelketan kanporatzen zituzten taldeek Iturripekoko txapelketan asetzen zuten futbol gosea. 1993-94 denboraldian, bestalde, 80 taldek eman zuten izena, eta, inoiz baino finalerdi pareka-

tuagoak jokatu eta gero, Argi Ibili eta Fosforos taldeak iritsi ziren finalera. Arrasateko gazteak Fosforos taldearen alde, eta gainerakoak Argi Ibiliren alde. Argi Ibili nagusitu zen (2-1).

1994an, urtero moduan, txapelketa Maritxu Kajoiren biharanarekin hasi zen, eta jokalaria askok trajea jantzita jokatu zuten denboraldiko lehen norgehiagoka. Azken partidua, berriz, Zuloak eta Adelaida taldeek joka-

tu zuten, eta partidu parekatua jokatu eta gero, Zuloak nagusitu zen, penalti jaurtiketetan.

#### INOIZ BAINO JOKALARI GEHIAGO

Hurrengo urtean, zortzi talde gutxiagok eman zuten izena. Guztira 72 talde izan ziren, baina inoiz baino jokalaria gehiagok hartu zuten parte Zaldibarko txapelketan: 1.231 jokalaria guztira. Horrenbeste jokalariren artean, hirugarrenekoz Argi Ibili taldeko jokalaria izan ziren onenak, Cervecería Leintz taldeari finalean 6-3 irabazita. 1997-98 txapelketan, talde kanpotar bat nagusitu zen finalean: Orlando Piratas, hain justu ere. Sortu Informatika taldearen kontra neurtu zituen indarrak. Finala ikusgarria izan zen, eta aretxabaletarrek azken minutuetan izandako erreakzioari esker irabazi zuten (5-4).

Hurrengo urteko txapelketan, Aldibi taldea izan genuen finalean. Talde hartan aurreko urteko Sortu Informatika taldeko jokalaria batzuk zeuden, eta aurreko urtean lortu ez zutena erdietsi zuten: Zaldibarreko txapelketa irabaztea, alegia. Irati STS taldearen kontra neurtu behar izan zituen indarrak, eta finalean 8-3 gailendu zen Aldi-

bi. 1998-99 txapelketan, Bonba Taldeiek hartu zuten Zaldibarko txapelketa antolatzekeo ardura, baina txapelketa hilabete geroago hasi zen. 53 taldek eman zuten izena, eta Aldibi eta Orlando Piratas iritsi ziren finalera. Orduan, ordea, aretxabaletarrak ez ziren aurkari izan, eta, hala, arrasatearrak erraz nagusitu ziren (10-1).

Hurrengo urtean, 99-00 txapelketan, Aldibi taldea iritsi zen finalera berriro ere, hirugarren aldiz jarraian. Talde beteranoari aurre egiteko asmoz, Etxerat taldea izan zuten aurrez aurre. Lehenengo zatian Aldibi taldeak nagusitasuna erakutsi, eta aurre hartu zuten. Bigarren zatirako ez zen sorpresarik espero, baina Etxerat taldekoek partiduari buelta eman, eta 4-3 nagusitu ziren. Joan den urtean, berriro ere talde kanpotar bat izan zen txapelketako finalean, Aramaioko Rayo Aldeano taldea, hain zuzen ere. Chapime Dribling taldea ahalegindu zen arabarrei aurre egiten, baina Rayo Aldeano nagusitu zen (4-2). Aipatu ditugun talde guztien artean, Irati STS, Chapime Dribling, Etxerat eta Rayo Aldeano taldeek oraindik jokatzen jarraitzen dute Zaldibarren. Luzerako izan dadila.



ARTXIBOA

Zaldibarko Txapelketan zehar, atezain askok sekulako maila daukatela erakutsi izan dute.

## Arrasatearrok batzen gaituen txapelketa

Asteburu mila lagun baino gehiago elkartzen ziren orain dela urte batzuk Zaldibarren. Egun, ez dira horrenbeste, baina txapelketak bizirik jarraitzen du. Pertsona nagusiekin berba eginez gero, askok gauza bera esaten dute. "Lehenengo garaian errespetu handiagoa izaten zen; orain, berriz, denetarik ikusten da, eta epaileak denetarik entzun behar izaten du. Lehen, ez zen horrelakorik".

Horrez gain, txapelketaren helburua ere dezente aldatu da: lehen, futbol taldeendako harrobia zen, baina egun, mutikoen talde federatuak alde batera uzten dituzte, eta Zaldibarrera joaten dira jokatzerara. Zigorrak ere izaten dira Zaldibarko txapelketan parte hartzen duten kirolariendako. Futbola kirola baino gehiago ei da, eta Arrasateren kasuan, behintzat, koadrilak eta auzoetako herri-tarrak pilotaleku baten inguruan batzeko

balio du. Ikusleek ere dezente eskertzen dute txapelketa hori. Talde federatuek eskertuko lukete Zaldibarrera joaten den ikusleen erdia, gutxienez, Iturripera edo Atxabalpera joango balira. Zaldibarko txapelketa hurbilekoa da, jende askok hartzen du parte eta ikuskizuna izaten da nagusi, horiek dira arrakastaren arrazoiak. Haritz Azkarragak aspaldi zioen moduan, Zaldibarko txapelketak hiru zutabe ditu: batetik, jokalaria, bestetik, jarraitzaileak, eta azkenik, txapelketa bultzatzen duten herriko erakundeak. Hiru zutabe horiek ezinbestekoak dira, baina beste oinarri bat ere gehituko nioke Zaldibarrari: antolatzaileak, hain justu. Urte hauetan guztietan, Arrasateko hainbat lagunek sekulako buruhausteak izan dituzte txapelketa hori antolatzen, inongo ordain barik, eta askotan sekulakoak entzunda. Zeuoi zor diñuegu hori guztia.





## ELKARRIZKETA

GORKA ZABALITZA/ABOKATUA

*“Epaiketak egongo dira; kontua da fiskalak akusazioa erretiratzea edo ez”*

ARRASATE IRRATIA

**I**ntsumisioa zigor gabetu eta ezarritako zigorrak balio-gabetuko zituela adierazi zuen Espainiako Gobernuak. Baina, oraindik ere, epaiketak egiten ari dira. Gu Kaki-tzat taldeko Gorka Zabaltza abokatuarekin izan gara:

**Zein da gaur egungo egoera?**

Gobernuak lege aurrekoa onartu zuen, baina oraindik ez dago legerik. Hemendik denbora batera legea aldatuko da, baina, ordura arte, ez dago aldaketarik.

**Zuk zeuk aurreko astean hiru epaiketa izan zenituen...**

Bai. Birritan fiskalak akusazioa bere horretan utzi zuen eta hirugarrenean kendu egin zuen. Bakoitzak gura duena egiten du.

**Arrasatekorik bada epaiketaren zain?**

Bai, jakina. Arrasateko biren epaiketak ditut, laster.

**Orain dela zenbat urte hasi zenuten borroka hau?**


11-12 urte intsumisioaren alde. Epaiketak geroago hasi ziren: 1992an, bizpahiru izan ziren, baina gehienak 1994an hasi ziren.

**15.000 intsumisotik gora izan da ordutik hona?**

Euskal Herrian 12.000 inguru, eta Gipuzkoan 5.000 inguru.

**Zer gertatuko da horiekin?**

Aurrekoan esan zuten indultu eskakizuna zutenei indultua emango zaiela. Zigorra dutenei, berriz, zigor hori berriro aztertuko diete; izan ere, egindakoa delitua ez bada (intsumiso izatea), zigorra ere kendu egin beharko zaie. Hori guztia legea aldatutakoan hasiko dira egiten, hilabete edo pare bat hilabete barru.



GORKA ZABALITZA

**Eta tarte horretan?**

Epaiaketak egongo dira; kontua izango da fiskalak akusazioa erretiratzea edo ez. Baina epaiketak egon egongo dira.

**Eta kartzelan dauden intsumisioekin, zer?**

Haiek ez daude kartzelan kode penal zibilarengatik, baizik eta kode penal militararengatik, eta orain aldatu gura dutena kode

zibila da. Posible da politikoki irtenbidea eman gura izatea, baina, berez, hori kode penal militararen barruan egonda, ez dute zertan aldatu. Dena dela, ez dute informazio askorik eman.

**Zerbait gehiago?**

Bai, eskerrak eman gurako nieke Arrasateko Udalarari eta, bereziki, Gazte Bulegoari, intsumisioaren alde egindakoagatik.

## Epaileak adierazi du Auzo Laguneko kanporatzea bidegabekoa dela

Epaiak erabaki du Auzo Lagun enpresak azaroan egin zuen kanporatzea bidegabekoa dela. Hala ere, jakinarazi zuen ELA sindikatuak joan den egubakoitzean emandako prentsaurrekoan. Eskualdeko Ospitalean lanean zebilen langile bati kontratua etetea erabaki zuen Auzo Laguneko azaroan; ELAk hori salatu zuen eta bi aldeek epailearen aurrean bukatu zuten. Orain, epaileak langileari eman dio arrazoia. ELAko ordezkariak gaineratu zuen sindikatuaren helburua dela langile hori berriro ere enpresan onartzea; ez bada Arrasatekoan, Auzo Laguneko duen beste edozein lantegitan; izan ere, langileak eda-

detua da eta gaur egun, gaitza izango du beste lekuren baten lana aurkitzea. Eta, langileak berriro onartzearen alde egiteko, ELAk mobilizazioekin segituko duela iragarri zuen.

Horrekin batera, Auzo Lagun enpresaren jarrera salatu zuen: “Auzo Laguni konfiantzazko botoa eman gura genion, herrikoa delako eta kooperatiba delako, baina, kasu honetan, multinazional baten moduan funtzionatu du: edozein enpresa neoliberal moduan, dirua mahai gainean ipini eta langilea kalera bota du”. ELAko ordezkariak, Mc Donalds moduko enpresa baten funtzionamenduari pareka-

tu zuen Auzo Lagun, eta adierazi zuen ez zutela espero horrelako jarrerarik.

**HARREMANAK APURTUTA**

Horren aurrean, Auzo Laguneko dituen harremanak apurtzea erabaki du ELA sindikatuak. Hau da, orain arte, ELAk ekimen bat egin izan duenean, Auzo Lagunen catering zerbitzua kontratatu izan du, hogeitaz. Hortaz, hemendik aurrera, beste enpresa baten zerbitzua kontratatuko du.

Edozelan ere, ELAk behin eta berriz jakinarazi zuen eurak prest daudela arazoa konpontzeko, eta, enpresak gura duenean, elkarriketarako gertu daudela.

## PSE-EEren egoitzari egindako eraso gaitzetsi du Udalak

UBANE MADERA


Sozialisten egoitzari egindako eraso gaitzetsi du Arrasateko Udalak. PSE-EEK udalbatzarrari aurkeztutako mozioa onartu zuten, EAJ, EA, EB, PSE-EE eta PPko aldeko botoekin eta Batasunaren kontrakoekin.

Alderdi sozialistaren egoitzaren kontra egindako erasoaren gaineko osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzarrak egubakoitzean. Han, PSE-EEK aurkeztutako mozioa onartu zuten. Mozioan esaten dutenez, eraso horrekin, inguruan bizi diren herritarren bizia arriskuan ipini dute erasotzaileek. Hori dela eta, mozioan honako eskaera hauek egin zioten sozialistek udalbatzarrari: batetik, eraso bera salatzea; bestetik, alderdi sozialistari eta egoitza gainean bizi diren bizilagunei elkartasuna adieraztea; hirugarrenik, Udalak hasieran bere gain hartzea erasoak eragindako kalteak (ia 20.000 euro). Eta, hala, Aseguruen Kontsorzioak babesten ez dituen kalteak ordainduko lukete sozialistek. Hala adierazi zuen Paco Garciak, PSE-EEko bozeramaileak; eta, laugarrenik, eskatu zuten ETArri indarkeria ekintzak alde batera uzteko eskatzea.

**EZTABAIDA**

Baina, bozketari ekin aurretik, eztabaida piztu zen alderdi politikoaren artean, bereziki, PSE-EEren eta Batasunaren artean. Hain justu, Xabier Zubizarreta Batasunaren izenean adierazi zuen ez dela “euren gutuko gertaera” izan, baina salatu zuen Euskal Herriko beste hiritar askok ere jasaten dutela eskubide urraketa, eta “denok jasaten ari garen gatazkaren emaitza” direla horrelako gertakariak. Edozelan ere, PSE-EEren kontrako eraso deitoratu zuen, elkartasuna adierazi zien eta gaineratu zuen euren “ez dutela horrelakorik ikusteko gogorik”. Besteak beste, elkarriketarako deia egin zien alderdi guztiei.

Paco Garciak, PSE-EEren aldetik, erantzun zion Batasunak eraso gaitzetsiko zuen itxaropena zutela, baina ikusi zutela betiko jarrerarekin segitzen dutela. “Herritarren bizia arriskuan ipini dituen gertaera bat” gaitzesten ari zirela gaineratu zuen, esanez, “horren egileak pentsamendu talibanista imposatu gura duten terrorista-faxistak” direla. ETAK hiltzeari uztean eta armak uztean, elkarriketarako gertu egongo lirakeela gaineratu zuen alderdi sozialistako bozeramaileak.



### Dolua Fagor Arrasaten

Martitzen arratsaldean eta eguaztenean, Fagor Arrasateko Arrasateko, Markinako eta Donostiako lantegietako ateak itxi zituen. Horrela, martitzenean Teheran inguruan hegazkin istripuan hil ziren enpresako lau zuzendariengatik dolua erakutsi zuten. Kalitate eta Ikerketa eta Garapeneko zuzendari Jesus Olazabalaga (hura Arrasaten bizi zen), Asiako eremuko zuzendari komertzial Julio Ibarra, Erosketa zuzendari Juan Carlos Goikoetxea eta Proiektu kudeatzaile Joseba Azkoaga hil ziren istripuan. Goian beude. /UBANE MADERA



# Lapurretak dezente ugaritu dira Arrasaten urte hasieratik hona

UBANE MADERA

Urte hasieratik hona, lapurretak areagotu egin dira herrian. Are gehiago, aurreko asteburuan bertan EYA etxetresna elektrikoaren dendara sartu ziren, eta beste bi dendatan ere lapurtzen saiatu ziren. Erdialdeko dendariak segurtasun handiagoa eskatu dute.

Ibai Artek idatzi bat bidali zuen Udalera egubakoitzean, Azkenaldian herriko saltokietan geroago eta lapurreta gehiago izan direla-eta kezkatuta, segurtasun handiagoa eskatzen zuten idatzian. Lapurretak, bereziki, gauez izaten direnez, gaueko zainketa handitzea eskatu zuten.

Hori egubakoitz arratsaldean izan zen, eta goizaldean bertan, herriko beste denda baten ostu zuten. Oraingoan, Iturriotz kalean dagoen EYA etxetresna elektrikoaren dendara sartu ziren. Egubakoitz goizaldean, ezezagun batzuek ateko pertsiana artaziekin ebaki eta zuloa egin zuten; horren ondoren, ateak zituen hiru sarrailak indarrez zabaldu eta barrura sartu ziren. Besteak beste, musika aparailuak, irratikaset txikiak, *diskman*-ak eta diskoak eraman zituzten, baita kanbioetan zegoen dirua ere. Artikulua idaztean, dendaren jabeak oraindik lapurtutako guztiaren zerrenda egiten ari ziren.

Baina, EYAz gain, herriko beste bi dendatan ere sartzen saiatu ziren lapurrak aurreko asteburuan: Totem eta Laket jantzi dendetan, hain zuzen ere.



UBANE

Pertsiana zulatu eta barruko hiru sarraila apurtu eta gero sartu ziren EYAn.

## URTARRILETIK HONA

Hori asteburuan izan zen; baina urte hasieratik hona, lapurreta asko izan dira herrian. Joan den hilean, Elkorok Seber Altuben duen dendan lapurtu zuten. Orduetik hona, eta Ibai Artek emandako datuen arabera, Ume eta AYLA jantzi dendetan eta Lilura lenzeria dendan lapurtu dute; Txuntxurunberde zapata dendan behin baino gehiagotan ostu dute eta Aranzabal dendari erakusleihoa apurtu diote, besteak beste.

## ERTZAINZA IKERKETAK EGITEN

Ertzaintzak emandako datuen arabera, urte hasieratik hona, Arrasaten zazpi lapurreta eta bost lapurreta saiakera egin dituzte. Herrizaingo Sailak gaineratu duenaren arabera, azkenaldi honetan

lapurretak igo egin dira, zalan-tza barik.

Edozelan ere, duela gutxi ibarrean lapurretak egiteagatik atxilotetak egin dituztela ere adierazi digute, eta atxilotutakoek Arrasateko lapurretekin zerikusirik duten edo ez ikertzen ari direla.

## UDALTZAINEN GAUEKO TXANDA

Lapurreta gehienak gauez izaten dira. Orain arte, Ertzaintza arduratu izan da gaueko txandaz, baina Udalak bazuen Udaltzainen gaueko txanda ipintzeko asmoa. Eta, hain justu, Zerbitzu Saileko buru Jose Mari Urizar *Ametzu*-k adierazi digunez, arazo txiki batzuk konponduz gero, litekeena da bi hilabete barru, hau da, apiriletik aurrera, herriko udaltzainek gaueko txanda egitea.

## LABUR


### Elkarriren Bake Konferentziaren gainean mahai-ingurua izango da martitzenean

Datorren martitzenean, Elkarrri lantzen ari den Bake Konferentziaren barruan, alderdi politikoen ordezkariak mahai-ingurua egingo dute Udaleko areto nagusian. Martin Calvok (EB), Markel Olanok (EAJ), Martin Aranburuk (EA), Iñaki Pierruguesek (PSE-EE) eta Xabier Zubizarretak (Batasuna) hartuko dute parte. "Adostasunen identifikazioan" oinarritutako metodologia erabiliko du Elkarririk mahai-inguruan. Eta, parte hartuko duten hizlariei galdere bi egingo die, besteak beste: batetik, alderdi politiko guztiak adostasuna lortzeko gutxienekoak zeintzuk diren; eta, bestetik, gainerako alderdi politikoen lekuan ipinita, haien ahotik entzutea gustatuko litzaiekeena zer den esatea eta euren ideiei uko egin barik gaur egungo egoera hobetzeko zer esan lezaketen adieraztea. Horrekin batera, herritarren parte hartze zuzena ere lortu gura du Elkarririk. 19:30ean izango da mahai-inguru hori.

### Udal Haur Eskolako matrikulazio kanpaina astelehenean hasi eta martxoan bukatuko da

Udal Haur Eskolak edo Umezaintza kooperatibak datorren astelehenean, hilaren 18an, zabalduko du 2002-2003 ikasturterako matrikulazio kanpaina. Udal Haur Eskolako orientatzaile Arantza Lejarragak aditzera eman digunez, martxoaren 1era arte izango da zabalik matrikulazio kanpaina ofiziala. Baina, hori bai, aurrean jaiotako umeen gurasoendako (2002. urtekoendako), martxoaren bukaerara arte luzatuko dute matrikula egiteko epea, bestela gaitza izaten dute-eta garaiz ibiltzea. Umea matrikulatu gura duenak Umezaintzara bertara jo dezake bete beharreko paperen bila. Eta eskolaren gainean informazio gehiago gura duenak 943772025 telefonora dei dezake, 301 luzapenera, hain justu ere. Bestalde, Umezaintzaren ordutegia 07:30etik 18:00ak artekoa da.

Iaz, 101 ume izan zituen Umezaintzak, orain dela bi urte baino %11 gehiago. Hiru urtera arteko umeak zaintzen dituzte Umezaintzan, 07:30etik 18:00ak arte. Eta, joan den ikasturteetik aurrera, zerbitzu publikoa eskaintzen du Umezaintzak, Arrasateko Udalarekin hitzarmena sinatu eta gero.



### Zaindariaren txabola erre dute

Egubakoitz eta zapatu artean, ezezagun batzuek Santa Barbara parkean dagoen zaindariaren txabolaren zati bat erre zuten. Udaleko Zerbitzu Saileko buru Jose Mari Urizar *Ametzu*-k emandako datuen arabera, txabolan Udalaren eta Parques y Jardines enpresaren lantresna batzuk zeuden gordeta (mangerak, bonbak eta antzerakoak). Eta, suteak gehienak kiskali ditu. Hain justu ere, guztira 6.000 eta 7.000 euro pasatxo arteko galerak izan dituzte, hau da, 1.000.000 eta 1.200.000 pezeta artean. Bakoitzak 3.500 euro galdu ditu, gutxi gorabehera.

# San Josepe harrobian, industria pabilioiak eta rokodromoak

UBANE MADERA

Udalak behin-behineko onespina eman dio San Josepe harrobian egin gura duten proiektuari. Horren arabera, industrialde txiki bat, rokodromoak eta oinezkoendako ibilbide eta guneak eraikiko dituzte gaur egun harrobia dagoen lekuan.

Legeak epe jakina ipintzen die harrobiei harrobi moduan jarraitzeko, eta, behin epe hori bukatuta, harrobia itxi egin behar dute. San Josepeko harrobiaren kasuan, 2004. urteko apirilera arte beharko dio harrobi izateari, bederatzi urtez jardun eta gero. Lege horrek berak adierazten du harrobia egon den gune osoa berreskuratu egin behar dela. Eta, nahiz eta oraindik ere San Josepen harria ateratzen jarraitzen duten, horrekin batera, hasi dira ingurua berreskuratzen.





ARTXIBOA

San Josepeko harrobia 2004. urteko apirilera arte beharko dute.

Eta, era berean, gune hura aprobetxatzeko, Udalak proiektua egin gura zuen. Orain, proiektu horri behin-behineko onespina eman dio. Aurrez ikusi duenez, harrobiaren ia 23.000 m<sup>2</sup> lau par-

tzeladun industrialde txiki bat egiteko erabiliko dituzte. Eta beste 5.000 m<sup>2</sup> pasatxo, herritarrendako gunea egiteko. Besteak beste, rokodromoak eta oinezkoendako guneak izango ditu.










## ARRASATEN UMEAK IZAN ZIREN PROTAGONISTAK

**A**rrasaten martitzenean ospatu zituzten Aratusteak, eta arratsaldeko lehenengo orduetarako jai giroa zen kaleetan. Herriko plazan elkartu ziren umeak izan ziren jaietako protagonista nagusiak, baina umeek baino areago, ez dakigu nagusiek ez ote zuten hobeto pasatu. Jaia martitzenean izan zen, baina eguazten goizaldean oraindik ere Aratusteek ez zuten agur esateko asmo handirik. Azkenean, ordea, nekearen poderioz eta datorren urterako indar apur bat gordetzeko asmoz, herriko Aratusteek agur esan ziguten. Datorren urtera arte itxaron beharko dugu, baina dagoeneko gutxiago geratzen da.







Partidua orekatua izan zen, baina AGR Arrasate eskubaloitako jokalariek bukaera bikaina eman zioten.

JULEN IRIONDO

## ESKUBALOIA

# AGR Arrasatek igoera fasea jokatzeko aukerak ditu oraindik

Senior mailako lehen taldeak 28-24 irabazi zion Urolari domekan

XABIER URZELAI

**AGR Arrasate eskubaloitako taldeak ondo jokatu zuen domekan Urolaren kontra. Kantxan parekotasuna izan zen nagusi, baina etxekoek azken minutuetan partidua erabakitzeko lortu zuten.**

Azkeneko minutuetan kalerik ez egitea. Hori izaten da askotan partidua irabaztera edo galtzera bultzatzen duena talde bat, eta oraingoan AGR Arrasate taldeko jokalariek argi izan zuten hori. Aurrean zeukatena aurkaria, Uro-

la, ez zen nolana hikoia, eta hasiera baten argi zegoen partidua parekatua izango zela.

Partiduko minutuek aurrera egin ahala, etxekoek defentsak hobera egin zuen, eta Aitor Txabarri atezainak, partiduko protagonistetako batek, asko esker-tu zuen hori. Norgehiagoka benetan parekatua jokatu zuten AGR Arrasatek eta Urolak, baina arrasatearrak azken minutuetan lortutako lau zepabost goleko aldeari esker nagusitu ziren.

**PARTIDU GOGOR BI AURRETIK**  
Arrasateko eskubaloitako taldeari

jardunaldi bi geratzen zaizkio, eta biak ere atzeratutako partidua dira. Arrasatekoek norgehiagoka bi horietan emaitza ona lortzen badute, igoera fasea jokatzeko aukerak izan ditzakete. Ez da erraza izango, bi partidua horietako aurkariak gogorrak izango direlako. Hortaz, otsail amaiera gogorra izango dute.

Arrasateko bigarren taldeak gutxiagatik ez zuen ezustea eman Urnietan. Azken uneko epailearen erabaki batek eta urduritasunek lan guztia hankaz gora bota zuten. Azkenean Urnieta nagusitu zen (27-25).

# Besaide MEk eskalada bideak ekipatzeko ikastaroa antolatu du

XABIER URZELAI

Besaide Mendi Elkarteak eskalada bideak ekipatzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 22an, 23an eta 24an izango da. Lehenengo eguna teoria irakasteko aprobetxatuko dute, eta ondorengo bi egunetan teoria

praktikara eramango dute, Aratzeko hormetan. Izena emateko eguna otsailaren 18a izango da, Uarkapen, edo bestela otsailaren 19an Besaideko egoitzan bertan.

**BADAGO ZER IKASI**  
Ikastaro horretan, eskaladaren arlo teknikoak ikasteaz gain, men-

dian kontuan izan behar diren beste hainbat gauza ere irakatsiko dituzte. Horietako bat ingurumena ahalik eta gehien zaintzea izango da: besteak beste, edozein lekutan eskalatzeko bide bat ezin dela zabaldu argi izatea. Ikastaro horretan izena emateko, federatua egotea beharrezkoa da.

# Jorge Sánchez karateka Euskadiko Txapelketan

XABIER URZELAI

**Oraingo dela bi aste Gipuzkoako Txapelketa eskuratu eta gero, Jorge Sánchez Euskadiko Karate Txapelketan izango da oraingo asteburuan. Emaitza ona lortzeko aukera asko ditu 20 urteko gazte horrek.**

Oraingo dela bi aste Altzan izan zen Gipuzkoako Karate Txapelketan Arrasateko Saioa Gimnasioko karatekek lan bikaina egin zuten.

Taldeka, gizonetakoetan eta emakumetakoetan arrasatearrak nagusitu ziren, baina gizonetakoetan Jorge Sánchez bakarrik izango da Euskadiko Txapelketan. Beste karatekek azterketak dituzte eta gutxi entrenatu dira, eta ez dira Euskadiko Txapelketara joateko adina prestatu.

Jorge Sánchez 20 urteko gaztea 70 kilo azpiko *kumite* modalitatean arituko da, eta lan polita egiteko aukera asko izan ditzake.

ke. Karateka horrendako Euskadiko Txapelketara joatea ez da gauza berria izango, hamalau urte zituela txapelketa horretan parte hartu zuen-eta. Hala ere, senior mailan lehiatuko den lehen aldian da, hortaz, gauzak besteak beste, koak izango dira, seguru asko.


## KARATEAN, NESKAK BIKAIN

Gipuzkoako Karate Txapelketan Arrasateko Saioa Gimnasioko neskek lan txukuna egin zuten, eta emakumetakoetan taldeko txapelkunak izan ziren.

Oraingo asteburuan, Jorge Sánchezekin batera, Laida Ramos, Amaia Ormaetxea eta Trini Freide Irungo Artaleku kiroldegian jokatu den Euskadiko Txapelketan izango dira.

Karateka horien helburua Gipuzkoako Txapelketan egin zutena errepikatzea izango da, baina Euskadiko Txapelketan aurkituko dituzten lehiakideak askoz gogorragoak izango dira.

## FOTOKIROLA



## Pilota txapelketako finalerdiak Uarkapen

Bihar, zapatua, sekulako pilota jaialdia izango da Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Arratsaldeko sei etatik aurrera, hiru partiduz gozatzeko aukera izango da. Lehenengo partidua bigarren mailako binakako txapelketakoa izango da. Gero, Titin III.ak eta Apeztegiak Tirapu eta Zearra izango dituzte aurkari; eta partidua hori amaitzean, norgehiagoka nagusia izango da, binakako finalerdietako partidua: Esainek eta Belokik Olazola I.a eta Patxi Ruiz izango dituzte aurrez aurre. /X.U

**Babeslea**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



SASKIBALOIA

# Kenci Arrasate ezin izan zitzaien gailendu Caja Rural Ardoi taldeari

Talde nafarra 85-92 nagusitu zen domekan Iturripen jokaturako norgehiagokan

XABIER URZELAI

Kenci Arrasatek ezin izan zuen igoera faseko bigarren partidua irabazi, eta jokalariek gutxierekin jokatu izanak gura baino kalte handiagoa egin zion. Arrasatekoak hasieran aurreratu egin ziren, baina partiduan nafarrak izan ziren nagusi, jokoan eta emaitzan.

Kenci Arrasateren denboraldi hasierako helburua igoera fasea jokatzea zen, eta helburu hori lortu egin zuten. Baina etxekoek partidua bakarrik irabazi dute maila horretan. Hala ere, etxekoek ez dute maila kaskarra erakusten. Hasieratik argi zeukaten euren helburua zela ondo jokatzen ahalagindu, partiduekin esperientzia hartu eta, ahal izanez gero, ezusteren bat edo beste ematea.

Joan den asteburuan, ez zuten lortu ezusterik ematea. Caja Rural Ardoi taldearen kontra etxekoek ahal zutena egin zuten, baina partidua hobeak ere egin dituzte. Lehenengo laurdena nahiko parekatua izan zen, eta 21-25 ziren nafarrak aurretik. Gauzek onera egin beharrean okerrera egin zuten, eta arrasatearrek ez zekiten markagailuko alde zela murriztu.

Hirugarren laurdenean etxekoek zonakako defentsarekin ahalagindu ziren, baina gauzek antzerk jarraitu zuten.

**AZKEN ERREAKZIOAREN ZAIN**

Iturripera partidua ikustera hurreratu zirenek aurreko partiduan izandako erreakzioa espero zuten, eta halaxe gertatu zen. Partidua amaitzeko zazpi minutu falta zirenean, arrasatearrek lau puntura arte hurreratu ziren. Une egokia zen azken esfortzua egin eta partiduari buelta emateko, baina askotan gauzak ez



Kenci Arrasate taldea, Urdanetaren kontrako partiduan.

ARTXIBOA

## Arrasateko taldeak azken laurdenean gora egiten du, baina zapatuan ez zen nahikoa izan

dira ateratzen batek gura bezala. Gaizki bukatutako erasoaldi batzuetan etxekoek aukera guztiak galdu zituzten, eta nafarrak, markagailuko aldeari eutsita, 85-92 nagusitu ziren. Arrasatearrek

asko nabaritu zuten Iker Errastiren, Iagoba Gamarraren eta Iraitz Elortzaren falta.

**LANEAN JARRAITZEKO ASMOZ**

Etxeko taldeak lanean jarraitzea besterik ez du, eta poliki-poliki partidua hobeak egiten ahalegindu. Arrasatearrek igoera fasean galdutako lehenengo partidua gutxiatik galdu zituzten, baina ondoren galdutako beste biek min handiagoa egin diete. Azken baten, talde horiek ez ziren etxekoak baino hobeak. Oraingo asteburuan, arrasatearrek Deustura joango dira partidua jokatzen.

FOTOKIROLA



## Boulderrean, herrikoak nagusi

Aurreko asteburuan, Besaide Mendi Elkarteko eskalataileak Gasteizko Hegoalde kiroldegian jokaturako boulder txapelketan izan ziren protagonistak. Guztira 45 eskalataile izan ziren, eta Markel Mendieta arrasatearra nagusitu zen. Eta Jon Arantzeta hirugarren izan zen. 16 urtetik beherakoetan, Ander Mendieta bigarren izan zen. Hortaz, anaia bi horiek zeresana emango dute. /X.U

ZALDIBARARETOFUTBOLA

**EMAITZAK**

**A MULTZOA**

Betrayer - Bazar Toki On	9-3
Saukelu Scream - Fragel Gol	8-4
Aurrera Bolie - Estu Ta Larri	8-8
Rayo Aldeano - Goma2	2-3
Chapime Dribling - Txotx	7-3
Bikain Akademia - Maldifa's	10-2
Usoz Potroak - Lasagabaster	3-2
Iriztu Taberna - Makanaki	3-1

**B MULTZOA**

Irati STS - Bin Laden	4-1
AC Surcos - Komando Alpagat	7-3
Etixerat - AT Celaya	3-4
Koka Junior Basati - D.D.K.	6-3
Abocajarro - E.G.D	10-2
Full Duplex - AKTA	0-1
Azkena You Know - Etxinal!	9-2
Irati STS - I.K.P.	7-0

**PARTIDUAK**

**OTSAILAK 16, ZAPATUA. EPAILEAK**

08:50: KJ Basati - E.G.D. Aurrera Bolie
10:00: Aurrera Bolie - Txotx. E.G.D
11:00: Betrayer - Fragel Gol. Txotx
12:00: Bazar T.O - Estu Ta Larri. Betrayer
13:00: Full Duplex - Azkena YK. Estu Ta Larri
14:00: Usoz Potroak - Iriztu tab. Azkena YK
15:00: Goma2 - Saukelu Scream. Iriztu tab
16:00: Etixerat - I.K.P. Goma2
17:00: Rayo Aldeano - Maldifa's. Etixerat
18:00: Chapime Drib - Lasagabaster. Maldifa
19:00: Abocajarro - Etxinal! Chap Dribling

**OTSAILAK 10, DOMEKA**

09:50: Bikain akad - Makanaki. AT Celaya
11:00: Bin Laden - AT Celaya. Bikain akad
12:00: Saukelu Scream - Estu T.L. Bin Laden
13:00: Irati STS - K.Alpagat. Saukelu Scr.
14:00: AC Surcos - D.D.K. K. Alpagat

Atsedena: A.K.T.A

**AZKENEKO ESPRINTA**

**AZKENEKO PARTIDUAK, ERABAKIGARRIAK**

Lehenengo fasea amaitzeko ez da askorik falta, eta multzo bietako sailkapen taulek erakusten duten moduan, oraindik ez dago ezer erabakita. Bigarren fasea sailkapeneko lehenengo zortzi taldeek jokatuko dute, hortaz, azken partidua horiek erabakigarriak izango dira talde askorendako.

**SAUKELU SCREAM ETA ESTU TA LARRI TALDEEK PARTIDU BINA**

Txapelketan hainbat partidua atzeratu gin dira, eta oraingo asteburuan, Saukelu Scream eta Estu Ta Larri taldeek partidua bi jokatu beharko dituzte. Joan den asteburuan, Irati STS taldekoek partidua bi jokatu zituzten, eta biak jarraian, gainera. Bin Ladenen kontra 4-1 irabazi zuten, eta IKPren kontra 7-0. Asteburu biribila, hortaz.

**SAILKAPENA**

**A MULTZOA**

	P	J
1. Bikain Akademia	21	12
2. Chapime Dribling	20	12
3. Goma2	20	12
4. Iriztu Taberna	20	12
5. Betrayer	16	12
6. Usoz Potroak	14	11
7. Rayo Aldeano	12	12
8. Aurrera Bolie	12	12
9. Lasagabaster	10	12
10. Estu Ta Larri	10	11
11. Makanaki	8	11
12. Saukelu Scream	8	11
13. Fragel Gol	6	12
14. Bazar Toki On	5	12
15. Txotx	4	12
16. Maldifa's	2	12

**B MULTZOA**

	P	J
1. Azkena You Know	22	12
2. Etixerat	20	11
3. Irati STS	18	11
4. AT Celaya	18	11
5. AC Surcos	15	11
6. I.K.P.	12	11
7. Bin Laden	11	11
8. D.D.K.	9	10
9. Komando Alpagat	9	11
10. Koka Junior Basati	8	11
11. Abocajarro	7	11
12. E.G.D	6	11
13. AKTA	6	12
14. Full Duplex	4	11
15. Etxinal!	1	11

**KIROLAGENDA**

**JOKATZEKOAK**

**PILOTA JAIALDIA. (BINAKAKO FINALERDIAK)**

Esain - Beloki  
Olaizola I - Patxi Ruiz  
Zapatu arratsaldean. Uarkape pilotalekuan.

**FUTBOLA**

**Mondra - Pedrusko**  
Erregionala. Zapatuan. 16:00. Atxabalpen.  
**Arrasate - Dunboa**  
2.gazteak. Igandean. 11:00. Atxabalpen.  
**Arrasate - Real Union**  
Ohor. Inf. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.  
**Mondra - Pedrusko**  
Neskak. Domekan. 16:00. Atxabalpen.  
**San Martzial - Mondra**  
Ohor. jub. Domekan. 17:30. Irunen.  
**Bergara - Arrasate**  
Ohor. Kadet. Zapatuan. 18:15. Bergaran.

**SASKIBALOIA**

**Fineco Lasalle - Kenci Arrasate**  
Seniorrak. Zapatuan. 18:20. Deuston.  
**Ind Lagun Artea - Kenci Arrasate**  
23 urt behe. Zapatuan. Kanpoan.

**Kenci Arrasate - Easo B**

Junior mut. Zapatuan. 16:00. Musakolan.  
**CD Internacional - Kenci Arrasate**  
Junior nesk. Zapatuan. 12:00. Kanpoan.  
**Kenci Arrasate - Ordizia**  
Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

**ESKUBALOIA**

**AGR Arrasate - Arrasate**  
Seniorrak. Domekan. 11:30. Musakolan.  
**ERRUGBIA**  
**Arrasate - Gaztedi**  
Nagusiak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Ohor. gazt: Mondra - Euskalduna. .... 2-0  
Ohor. kadete: Arrasate - R. Sociedad. .... 0-7

**ESKUBALOIA**

AGR Arrasate - Urola. .... 28-24  
Urnietako - Arrasate. .... 27-25

**PILOTA (DEBARROKO TXAPELKETA)**

Gazteak: Arrasate - Antzuola. .... 10-22  
Seniorrak: Arrasate - Antzuola. .... 22-7



Puxtari produkzio-etxeak Arrasateko Amaia Udal Antzokira ekarriko du ETBko pailazoen azken ikuskizuna

# Txirri, Mirri eta Txiribitonek 'Altza, porru' eskainiko dute asteleheneetik eguaztenera

IKER BARANDIARAN

Datorren astelehenean, martitzenean eta eguaztenez, Txirri, Mirri eta Txiribitonen azken ikuskizuna, *Altza, Porru!*, ikusteko aukera izango da Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera.

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak euren zenbait lagunekin batera arituko dira datorren astelehen, martitzen eta eguaztenez Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik aurrera. Dagoeneko, hiru mila gutun bidali dituzte Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergarako eskoletara. Denek izango dute pailazoak eta euren lagunak ikusteko aukera. Eta oso merke, gainera. Sarre-rak euro baten jarriko dira salgai, eta *Betizu* txartela daukatenek euro erdian erosi ahal izango dute sarrera.

*Altza, porru!* saioa zapaturio izaten da ikusgai ETBn, baina herriz herri doan ikuskizuna ere bada. Ikuskizunean, Txirri,

Mirri eta Txiribiton pailazo eza-gunez gain, Elvi sabeliztuna, Ritxi untxia, Prantxiska landarea, Kakusain gaiztoa, Lurrupin anaia bikiak, Txan magoa, mumurroak eta, zelan ez, pailazoen maskota den *Altza, porru!* porru erraldoia ere umeekin izango dira.

## PROGRAMA BAKOITZA, IPUIN BAT

Txirri, Mirri eta Txiribitonen lagunak diren pertsonaia guztien nondik norakoak Ixiar Orejak kontatuko dizkigu. Horien artean, Txan magoak munduko hainbat txoko bisitatuko ditu, batik bat, magiako teknika berriak ikasteko asmoz, eta umei ere erakutsiko ei dizkie. *Altza, porru!* ikuskizunaren antolatzailleek nabarmendu dutenez, garrantzitsua ei da umeek ikuskizunean duten parte hartzea, eta hori lortzen saiatzen dira.

Gainera, saioa ikusten ari direnen artean giro aproposa sortzea helburu duten *mumurroak* jende artean sakabanatuko dira, ikusleei eta istorioetako pertsonaiei animuak emateko.



Porru erraldoiaz gain, Txirri, Mirri eta Txiribitonen beste hainbat lagun ezagutzeko aukera izango dute txikienek.

## Jokin Rodríguezek margolanen erakusketa jarri du Gure Leku

IKER BARANDIARAN

Jokin Rodríguez arrasatearrak zazpi margolanen osatutako erakusketa zabaldu du Mondragoeko Gure Leku tabernan, martxoaren 1 arte. Jokinek Gure Leku tabernako iazko margolan lehiaketa irabazi zuen, *El Olvido Azul* margolanarekin.

Jokin Rodríguezek txikitatik dauka margotzeko zaletasuna, gerora, irakaskuntza ikasi bazuen ere. Askotan gertatu ohi den bezalaxe, ez dauka gura adina denbora margotzeko, baina aisialdian hainbat margolan egiten ditu.

Dagoeneko Jokinek hainbat lehiaketa irabazi ditu. Hain zuzen ere, 1993. urteko San Juanetako kartela berak egin zuen, baita 1995. urteko Aratusteetako kartela ere. Horrez gain, hainbat elkarterendako kartelak, iragarkiak, *Maria Errauskin* operarako dekoratuak, eta abar egin izan ditu.

Jokinek edozein material erabili ohi du margotzeko, gehienetan akriliko oinarri baten oliorekin margotzen badu ere. Hala ere, margotzen duenean trazu



azkarrak egitea gurago du, eta lehenengo inpresioarekin gelditzea hobesten du. Ez du margoei ukitu gehiagorik eman gura izaten, eta, horregatik, azkar samar egiten ditu margolanak.

Estiloari dagokionez, Jokinek atzealde abstraktuak egiten ditu eta gero irudi konkretuak itsasten dizkie. Jokinen margolanek kolore asko izaten dituzte, eta hainbat irudi nahas-

teko joera handia dauka. Gaiei dagokionez, istorio edo kontakizunak izaten dira, ametsak... "Onena, bakoitzak bere erara interpretatzea da, esanahi asko izan ditzakete-eta".

Iaz Gure Leku tabernako lehiaketa irabazi zuen *El Olvido Azul* lanarekin batera, beste sei lan ditu ikusgai. Dagoeneko hirietako irudiei buruzko beste lan batzuk prestatzen ere hasi da.

## KULTURAPILULAK

### Al Andalus elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako

Al Andalus elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Hain zuzen ere, gaur bertan, 20:00etatik aurrera, Angel Luis Verak *Andalucía: pasado, presente y futuro* izenburuko berbaldia egingo du Al Andalus-ek Musakolan duen egoitzan. Zapatuan, 23:00ak aldera, eta Aratusteetako ekitaldiekin bat eginez, egoitzan bertan *playback* txapelketa izango dute aurten ere, Amaia Udal Antzokian egiten zenari jarraipena emanez. Asteburuko ekitaldiei amaiera umoretsua emateko, domekan, 19:00etan, Cadizko Txirigota taldea arituko da Al Andalus-eko bazterrak alaitzen.

### Arkada Sozial, Kañeria 13 eta Des-Kontrol taldeek disko bana izango dute kalean aurten

Joan den urte bukaeran, Arkada Sozial taldekoek punk eta Oi! estiloak uztartzen dituen diskoa grabatu zuten Shot! estudioan. Oraindik diskoetxe bila dabilta, baina edozein egunetan kale-ratuko dute grabatutakoa. Bestalde, Garagartza aldeko Kañeria 13 taldeko partaideak, kontraturik ez badute ere, egunotan Shot! estudioan dabilta, euren bigarren lana izango dena prestatzen. Eta Des-Kontrolkoak dagoeneko Madrilgo Potencial HC disko-etxearekin diskoa grabatu eta berehala izango da kalean.

### Txatxilipurdi 2002ko udalekuen prestaketa lanetan hasi da eta begiraleak behar ditu

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak 2002ko udalekuak prestatzen hasi da. Horrela, begirale lana egiteko interesatuei deialdia egin die martxoaren 30a baino lehenago Txatxilipurdi elkarteak Pablo Urangin duen egoitzan edo 943-795446 telefonoan (Jasone edo Itziar) izena eman dezaten. Udan begirale lana egiteko honako baldintzak bete beharko dira: adinez nagusia izatea; umore ona eta lanerako prestutasuna agertzea; euskaraz mintzatzeko gaitasuna izatea, eta Txatxilipurdiko eragile formazio saioetan parte hartzea. Izena-ematerakoan, curriculum, argazki bat, Nortasun Agiriaren fotokopia eta begirale titulua aurkeztu beharko dira.



E, TXO!

GUREGAIK/ ELURRETAKO KIROLAK

# Elurretara joateko zaletasuna nagusituz doa gazteen artean

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko badira zenbait urte elurretara joateko zaletasuna gutxi batzuetatik gazteriaren gehiengora pasatu dela. Egun, elur sasoiako asteburuetan, azkar igartzen da herrian gazteak falta direla.

Eskiatzea eta, orokorrean, elurretako kirolez gozatzea zaletasun handia bilakatu da arrasatear askoren artean, batez ere, gazteen artean. Elurra urrunera usaindu bezain laster, eskiatzeko materiala bildu eta joateko irrikan egoten dira asko eta asko.

**ZALETASUN GARESTIA**

Ez dago zalantzarik, eskiatzea zaletasun garestia da. Arrasate-

*Eskiatzea ez da zaletasun merkea. Egonaldia, eskiak, botak eta arropak ordaindu behar dira*

ar gehienek Candanchura, Formigal-era edo Astunera jotzen dute gehienetan. Eta han, etxerik eduki ezean, lagun taldeek sasoi baterako etxea errentan hartu edo, bestela, hoteletan eta antzekoetan gaua egingo dute.

Horrez gain, elur pistetan ibili ahal izateko, forfaitak ordain-



ARRASATE PRESS

Arrasateetik jende mordoak joaten da elur sasoietan kanpora eskiatzera.

du beharko dituzte, eta, jakina, merke jota, eski pare batek, botek eskiatu ahal izateko materiala eta makilek seihun bat euro eskuratuko dute. Dirudienez, balio dezakete.

**GAZTETXEKOEK, TXOTXI!**

AGAKOk sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 2rako. Goizean irtengo dira, sagardotegi baten bazkalduko dute eta iluntzerako bueltan izango dira. Txartela erosteko azken aukera gaur izango duzue, egubakoitza, gaztetxean bertan. Eta izena ematerakoan, sei euroko fidantza ordaindu beharko da.

**MATXINEKIN BARRE EGIN ZUTEN**

Antzerki umoretsua eraman zuten AGAKOkok gaztetxera. Iruñetik Matxin artista etorri zen, eta haren antzerki, mimo eta clown nahasketak barre ugari eragin zituen ikusleen artean.

**EUSKAL DANTZAK**

Aurreko astean iragarri genuen bezalaxe, gaztetxean euskal dantzen ikastaroa antolatu dute, baina atzeratu egin behar izan dute. Otsailaren 24an hasi beharrean, martxoaren hasieran hasiko dutela kontatu digute gaztetxeok. Dena dela, datorren astean zehaztuko digute ikastaroaren data zehatza.

**MUSIKA EMANALDIA**

Gaur bertan kontzertua izango da gaztetxean. Hain zuzen ere, Madrilgo Sarcastic Bombs eta Bergarako Cool Panic taldeak arituko dira, 22:00etatik aurrera. Punk-rock eta rock-and-roll doinuak izango dira nagusi gaztetxean.

**LUDOTEKA IBILTARIA**

Txatxilipurdi aisialdi elkarteak ludotekarik ez duten auzoetarinako ludoteka ibiltaria eramateko ahaleginetan jarraitzen du. Zapatuan, 11:30etik 13:00etara, ludoteka ibiltaria egingo dute Musakolako Herri Eskolan.

LOTSABARIK/ Iker Urzelai

## “Auto lasterketako pilotu izan gura nuen”

IKER BARANDIARAN

Ikerri hainbat disko eskaini behar izan dizkiot elkarrizketa hau egiteko. Hori txantajea dela esango du norbaitek, baina ia guztia da zilegi gaur egungo gazteak konbentzitu ahal izateko.

• Txikitan, zer izan gura izan zenuen?

Auto lasterketako pilotu izan gura nuen, baina oraindik gidabaimena atera ezinda nabil. Atera kontuak...

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ez dakit. Seguruenik ezkon-

duta eta oraindik etxeko hipoteka ordaintzen.

• Zein da, zure ustez, adin ideala?

18-20 urte. Adin polita da, oraindik zure kasa ibiltzeko aukera dagoelako.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehenetasuna?

Lagunei, familiari eta ondo pasatzeari.

• Eta zerk arduratzen zaitu gehien?

Gerrak, baita ikasketak amaitzerakoan lana topatu ezinda ibiltzeak ere.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok; adibidez, elkarrizketa hau egiteak ez dit grazia handirik egiten.

• Zure bertute bat?

Pazientzia handia daukadala.

• Zure alde txarren bat?

Askotan, lasaiegia izateak dakartzan arazoak.

• Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?

Nire gustuko taldeen kontzertu gehiago egitea.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?


Belarriak, txikiak eta politik dauzkadalako.

• Arrasaten ligatzen da?

Ezer ere ez. Batez ere, ez gare-lako ahalegintzen.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?


Aurpegiari, batez ere. Bestela, orokorrean.



ADINA: 18 urte • IKASKETAK: Mekanizatueta modulu • ZALETASUNAK: Musika entzun, lo egin eta lagunekin egon  
LIBURU BAT: 'Casa sin techo' irakurtzen nabil • FILM BAT: 'El día de la bestia' • MUSIKA TALDEA: AC/DC • KIROL TALDEA: Reala

gorka ileapaindegia  
ordutegia:  
asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00  
larunbatetan 08.00 - 14.00  
ferrerias, 35  
arrasate  
943 77 13 78

*Gorka*  
*ileapaindegia*

 **Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**CLUB**  
**IYOLA**

Elgetara bidea  
**BERGARA**  
943 76 11 29



## BEHEKOTABERNATIK

## Iban Garai

## IRATI TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Iban, lagunendako Muxi, oin dala gutxi hasi da Irati tabernan lanien. Ahaleginketan da tabernako ordutegixe moldaketan futbolien egin ahal izeteko. Izen be, Mondran jokaketan dau Ibanek. Administrazioñue eta Finantzak ikasi euen Eteon, Oñatin. Eta praktikak geurien egin zittuen Ibanek, Goienan.

## Ametz bat?

Euskal Herri independente eta sozialistan bizi izetie.

## Ametz txar bat?

Gaur egungo egoerie.

## Egin dozun azken biajie?

Granadara, neguen.

## Txartel horixe, zeñei?

Manipuladoriei.

## Eta gorrixe?

Garzonei eta Mayor Orejari.

## Pelikula bat? Liburu bat?

## Disko bat?

Braveheart / Babilonia / Su Ta Gar-en Jaiotze basatia.

## Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

## Eta prostituziñue?

Hori be bai.

## Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

## Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen eta etxebizitzien arazue konponketan ahaleginduko nitzake.

## Eta lehendakari izengo bazitze?

Hamengo arazue konponketan ahaleginduko nitzake.

## Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Geure ama.

## Eta ezagutu nahiko zeunkeena?


Hilda dago, baiñe Bob Marley ezaguketie gustauko litxakit.

## Tranpan ibiltteketan norbaittekin, zeñekin?

Gustoko norbaittekin egon ezkerro, ez dau merezi.

## Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

AXN telebista kateko Extre-



X.U.

*“Kirol gehixenak gustetan jat, baiñe futbola, eskixe, surfa eta eskaladie dittut gogokuen”*

mania. Irratixen, Arrasate Irratiko Igo Autobusera entzuten dot.

Lagun batei ze trago eskeiñiko zeuskio?

Bombay ginkasa. Limoiakin atarako neuskio.

Tabernari izetiek daukon gauza on bat?

Jende asko ezaguketan dala.

Eta gauza txar bat?

Bezero askokin konfiantza haundixe dauketela, eta konfiantza haundixe dagoenien, askotan...

Ze falta jakue gaur egungo gaztietei?

Gaurko gaztiek komoñuegixek diela esango neuke, edozer gauzatan gutxi konprometiduten diela.

Eta ze daukie sobran?

*“Gaurko gaztiek komoñuegixek die, edozertan gutxi konprometiduten gare”*

Ez dot uste gaur egungo gaztiek ezer soberan daukienik.

Mondra futbol taldie ala Real?

Bixek, baiñe Mondra lehenago.

Futbolaz aparte, egitten dozu beste kirolik?

Bai. Futbolien talde federatu baten jokaketan dot, baiñe, horretaz aparte, eskixe, eskaladie eta surfa egittie gustetan jat. Baiñe gura baiño gutxiago praktiketean dittut.

Lanien zabitzela, zein atarako zeuke gustora tabernatik kanpora?

Galdera ona. Momentu horretan pelmadie emuten dabillen mozkorren bat-edo. Eta, horrekin batera, beste asko be...

## NIREBIDAIAHURA / Pedro Olmo

Tarifa eta Alpeak / 2001eko abuztuan


**P**edrok eta neskalagunak kontrastez betetako opprraldia izan zuten joan den urteko abuztuan. Lehenengo hamabostaldia furgoneta hartu eta Tarifara joateko aprobetxatu zuten. Hantxe, eguzkia, hondartza, eguraldi ona...

Lehenengo hamabostaldia eginda, itxuraz hondartzarekin eta beroarekin aspertu eta Alpeetarako bidea hartu zuten. Bidean Arrasateetik pasatu ziren. Sandalia, bainujantzia eta udako arropak berriz armairuan sartu, eta elurretarako txamarra, eskularru, eta mendiko material guztia hartu zuten. Bikote horrek beste hamabost egun egin zituen Alpeetan. Egun gehienak Frantziako alpeetan egin zituzten, baina Italiako eta Suitzako Alpeetan ere izan ziren.

Alpeetan, mendian oinez ibiltzeko eta apur bat eskia-tzeko aprobetxatu zuten. Tiñesen eta Chamonix-en izan ziren, leku bakoitzean astebete. Beheko herrietan ez da elurrik izaten, baina hiru mila metrotik gora elurra izaten da. Neskalagunak eskiak eraman zituen eta Pedrok, snowa egiteko taula. Behe-denboraldian joan ziren, baina Pedrori oso garestia iruditu zitzaion hura gutzia: “Tiñes dirua gastatzeko prestatuta dago. Gu udan izan ginen, eta jarduera eta kirol mordoia egiteko aukera zegoen: zaldian edo parapentean ibili, golfean jokatu, eskiatu, eta beste ehunka ekintza”.

Eskiatzeaz gain, Leire eta Pedrok oinez ere ibilaldi politik egin zituzten: “Hainbat glaziarretan izan ginen. Plastikozko botak eta granpoiak eraman genituen, baina piolet barik. Lasai-lasai ibili ginen, lautadetan”. Uda partean eskiatzaile onak entrenatzera joaten dira leku horietara, eta Pedro udan berriro ere hara bueltatuko da. Horrekin ez dut esan gura eskiatzaile ona denik.

XABIER URZELAI



Mont Blanc eta Chamonix-eko orratzak.



*“Alpeak oso ikusgarriak dira, baina baita garestiak ere”*

*“Datorren udan, hainbat lagun berriro joango gara Alpeetara”*

**LANDALUZE**  
HARATEGIA · URDAITEGIA  
ESPEZIALITATEA : ETXKO ODOLOSTEAK  
ITURRIOTZ KALEA. 7 TEL. 943 79 14 86  
ARRASATE

**HIES**  
**BERRI**  
Tel.: 943 79 26 99



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76**“PAL”**burdindegia,  
brikolage  
eta tresneriaUribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



## ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Zelabait, lagun hauekin astelenero Abaroara jeisten diren nagusiek eskertu egiten diete emandako laguntasuna.

# Nagusiei laguntasuna eskaintzen dizkieten boluntaria prestuak

IKER BARANDIARAN

A skotan egin dugu berba hirugarren adinekoek daukaten arazo larri baten gainean. Aurreko asteetan Roman Balantzategiri esker hirugarren adinekoen osasunaz berba egin ahal izan dugunetan ere, hark argi eta garbi azpimarratu izan du gure nagusiek sufritzen duten arazo larrietako bat bakardadea dela.

Gure gizarteak erritmo azkarrak darabira, eta gu ere korrika eta presaka bizi izaten ohitu gara. Bien bitartean, hor dauzkagu gure nagusiak, ez beti, baina askotan albo batera utzita dauzkagunak. Egia da jende nagusia zainak, kasuak kasu, lan handia ematen duela batzuetan, baina eurekin gehiago egoteko joerak asko lagun diezaieke.

### LAGUNTASUNA EMAN ETA TERTULIA

Horixe bera pentsatu ei zuten Uribarriko zahar egoitzako emakume batzuek. Izan ere, duela zortzi bat urte, Uribarriko zaharren batzarrean ziharduen Nati

Carmonak eta beste emakume batzuek Iturbide egoitzako egoiliarrei laguntasun pixka bat ematea erabaki zuten. Deialdia zabaldu eta hamar bat emakume batu ziren. Urterik urte ordezkatuz joan dira emakumeak.

Horrela, emakumeak astelehenero Iturbide egoitzara joan,

### Egunerokoa aldatzeko

Joan den astelehenean, begirale baten urtebetetzea zen eta gozokiak banatu zituzten. Kafea ere zurrupada baten hartu dute, eta orain berbetan dabilta.

Joxe ia astero jaisten da: "Tertulian oso gustura ibiltzen gara, eta ahal dudan guztietan lagun hauekin Abaroara jaisten naiz, arrazoiren bategatik okupatuta ez banago, behintzat".

hainbat egoiliar Abaroako tabernara jaitsi, eta haiekin kafea hartzea erabaki zuten.

Eta oraindik ez dute tradizioa galdu. Astelehenero, laurak aldeira, Iturbidera jo, hamar bat egoiliar hartu, gurpil-aulkiekin zein barrik, eta Abaroara joaten dira. Guk, testigantza izateko asmotan, hara jo genuen, eta han aurkitu genituen Angelita, Begoña, Feli, Consuelo, Benita, Jesusa, Estefani, Nati eta Mari begiraleak. Eta eurekin, gustura, Nikolasa, Pilar, Obduli, Asunción, Maria Luisa, Meltxor, Joxe, Karmen, Angeli eta Enkarna.

Horiek horrela, kafea edo infusioaren bat hartu, begiraleren baten urtebetetzea denean nagusien artean gozokiak banatu, eta tertulian izaten dira astelehenero pare bat orduz.

Bukatzeke, nabarmendu beharra dago, zalantzarik balego, astelehenero-astelehenero nagusiei laguntasuna emateko asmotan batzen diren zortzi edo hamar emakumeak boluntarioak direla, hau da, musu-truk egiten dutela eginkizun hori.

## LABUR

### Arrasateko 1958ko kintoek urteko batzarra egingo dute martxoaren 2an

1958ko kintoek -1937an jaiotakoek- batzarra izango dute martxoaren 2an. Egun horretan, meza izango dute San Juan Bautista parrokiaren, 12:30ean, eta gero, txikiteoaren ondoren, bazkaria izango dute Udalpe elkartearen. Interesatuak dei diezaiotela Jose Riviereri (943791057) edo Pedro Fernándezi (943790248) otsailaren 24a baino lehen. Hamabi euro ordaindu beharko dituzte.

### Arrasateko 1951ko kintoek ere urteko batzarra egingo dute martxoaren 2an

1951ko kintoek -1930ean jaiotakoek- batzarra izango dute martxoaren 2an. Egun horretan meza izango dute San Juan Bautista parrokiaren, eguerdiko hamabi eta erdietan, eta gero, txikiteoaren ondoren, bazkaria izango dute Musakolako Hostalean. Bazkarira eta beste ekitaldietara joan nahi dutenek dei diezaiotela Juan Jose Uribarreni (943 798008), lehenbailehen.

## ZAHARRAKHOTIK

### Frantziska Leibar

ETXEKOANDREA

Frantziska Leibar Arrasaten jaiotako emakume bat da, baina sasoi baten Elorrioren ere ibili zen, Mondragoeko grebak bultzatuta.



### Haurtzaroa Elorrioren igarotzen, ezta?

Bai. Maala kalean jaiotzen, San Perion etxean, 1910. urtean. Aitajaunari Txanpon deitzen zioten, eta hala ezagutzen gaituzten batzuek. Gero, 1914. urtean, Arrasateko fabrika asko greba hasi zutenean, gure familiak Elorriorantz jo zuen, beste arrasatear askok bezala. Gure amak, beste batzuekin batera, eskiroren karrua irauli zuen.

### Hortaz, bizkaitar bilakatu zinen?

Gu bezala, beste arrasatear asko ere bai. Casa Poteroren, orduko bainuetxeen atzealdean, errentan sartu ginen, gu eta beste arrasatear batzuk. Txikitari nahiko lanpetuta ibili nintzen, eskolan hilabete batzuk besterik ez nuen igaro. Igurian, Elorrio sarreran, artzain familia batekin ibili nintzen. Neskame, sukaldari

laguntzaile, umezain... Denetik egin nuen Elorrioren.

### Eta berriro Arrasatera bueltatu zinen?

16 urterekin Sagastanera joan nintzen, neskame. 19 urterekin San Valentín de Berriotoxoaren aldrean Bedoñako Felix Bengoarekin ezkondu eta Arrasatera etorri ginen. Lehenengo Zaitegi denda gainera, eta gero, gerra denboran hamaika ikusita -tarrean, koinatua fusilatu zuten-, Arca de Noe gainera joan ginen. Sei seme-alaba, hamabost biloba eta sei birbiloba ditut. Egunerok paseatu, erreztatu eta betaurreko barrik irakurtzen dut.

**Hilbera kafetegia**

Urbarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**S. CARRASCAL S.L.**

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikan erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



**ARRASATE HOTELA**

Biteri, 1  
Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE

**Kiromasajea**

Muskuluetako minak  
Lunbalgiak (ziatika)  
Dorsalgia  
Zerbikalgiak

**Mizen Azzietta**

Giltzaduretako minak  
(tendoiak, lotailuak)  
Buruko minak  
Estresa

Zerkaosteta 12 Tel.: 943 79 00 35





ARRASATE  
**Mari Jose Unzueta**  
Otsailaren 18an, 18 urte.  
Urte askotarako! Lagunen partetik.



ARRASATE  
**Maite Arregi**  
Otsailaren 16an, 12 urte.  
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE  
**Oskartxo Orue**  
Otsailaren 17an, 28 urte.  
Zorionak! Oihanaren partetik.



ARRASATE  
**Unai Basabe**  
Otsailaren 16an, 30 urte.  
Zorionak! Bearen partetik.



ARRASATE  
**Sole Hernández**  
Otsailaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Ikerne García**  
Otsailaren 16an, 6 urte.  
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Beñat Barberena**  
Otsailaren 16an, 13 urte.  
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Leire Fernández**  
Otsailaren 15ean, 7 urte.  
Zorionak! Aitari, arren eta Unaiaren partetik.



ARRASATE  
**Mikel Albistur**  
Otsailaren 19an, 24 urte.  
Zorionak, artista! TMT.



ARRASATE  
**Igor Herrarte**  
Otsailaren 21ean, 24 urte.  
Zorionak, satellite! TMT.



ARRASATE  
**Olatz Heriz**  
Otsailaren 14an, 12 urte.  
Zorionak, "Kattalin-Balentina"! Etxeko partetik.



ARRASATE  
**Jesus Agirre**  
Otsailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, Ikerren eta Anderren partetik.



ARRASATE  
**Iban Manso**  
Otsailaren 16an, 27 urte.  
Zorionak, gurasoen eta anaiaren partetik.



ARRASATE  
**Julen Nafarrete**  
Otsailaren 17an, 4 urte.  
Zorionak, umezaintzako laguntzako partetik.



ARRASATE  
**Iban Goñi**  
Otsailaren 19an, 28 urte.  
Zorionak, Izarren, Aitorren eta Naiaren partetik.



ARRASATE  
**Clara Gamboa**  
Otsailaren 16an, urtebetetzea. Zorionak, etxekoentzako Zubitza-Azpikoen partetik.



ARRASATE  
**Eukene Ugarte**  
Otsailaren 18an, 10 urte.  
Zorionak, etxeko eta Agarre familiaren partetik.



ARRASATE  
**Marcelino Sanz**  
Otsailaren 24an, urtebetetzea. Zorionak, etxeko partetik.

BABESLEA

**Juan Manuel Berrueta**  
ARGAZKILARIA

GRAN LUJO INDEX PROMOZIOA  
ZURE ARGAZKIAK HANDIAGO

13X19cm-koak  
10X15 cm-ko prezioan

ARCO IDIA  
KALITATE BERMEA

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18

ADI!

Hurrengo zenbakian, **otsailaren 15etik 28ra** bitarteko zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.**



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



**NOBEDADEA!**



**AMAGARA**

Erdiko kale, 54 • ARRASATE • 943 79 09 09

**ENDOMASAJEA ETA ULTRASOINUAK**


Teknika biek in osaturiko  
**METODO IKUSGARRIA**

Zelulitisaren eta adipositate konkretuen aurkako tratamendu honek emaitza ezin hobeak lortzen ditu.

INFORMA ZAITEZ AMAGARAN  
KONPROMISO BARIK



*Zelulitisaren kontrako metodo onena, ebakuntza egin barik*



**WERU**<sup>®</sup>

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta leihoez gain:  
moketak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape kortinak,  
Kortinoba, testila...



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko otsailaren 8a / 15. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Gazteak gustura Udalak emandako lokalekin, baina baldintza malguagoak gura dituzte

UBANE MADERA

Udal lokalak erabiltzen dituzten gazteak gustura daude lortutakoarekin. Baina zenbait baldintza aldatzea gurako lukete: adibidez, lokalak erabiltzeko ordutegirik ez izatea. Bestalde, herriko gazte gehiagok lokala eskatu dute, eta orainoz ez dute lortu.

Urtarrilean, 15 eta 17 urte arteko 28 gaztek Udalak emandako lokalak estreinatu zituzten. Duela gutxi, lokaletara sartu-irteteko giltzak ere eman zizkien Udalak. Gazteek altzariak eraman zituzten, eta hantxe egoten dira. Lokalak lortzeko, gazteek ordezkariak izendatu zituzten. Gu birekin berbetan izan gara, Naiarekin eta Andonirekin, hain zuzen. Adierazi digutenez, "gustura gaude lekuarekin, ondo dago, baina ez da guk gura genuena". Gaztetxe bat eskatzen dute, "Aramaioko gazte guztiendako zabala izango litzatekeena". Zera gaineratu dute: "Gaztetxea zegoenean, herri-



Herrian dauden lokalak gazte guztien artean erabili beharko litzukete, Udaleko Kultura zinegotziaren ustez.

ko gazteok bat ginen. Orain, taldetan zatitu gara eta Udalak ere lokalak zatituta eman dizkigu;

horrek zaildu egiten du gazte guztiak batera ibiltzea". Horrez gain, lokalak erabiltzeko ordutegirik ez

finkatzea gura lukete, eta, lokalak eurei utzitakoak direnez, pribatuak izatea. Horren harira,

*Lokala gura duten gainerako gazteendako ez dago lokal gehiago herrian, orainoz*

salatu zuten behin Udaleko ordezkariak baimena eskatu barik sartu zirela eta lokalaren egoeraren argazkiak atera zituztela. Bestalde, sartu gura duten gazteendako lekurik soberan ez dagoela adierazi dute.

Kultura zinegotzi Txema Aberrategik adierazi digu azken baten lokalaren ardura Udalarena dela. Hortaz, zerbait gertatuz gero, erantzukizuna Udalari eskatuko diotela. Bestalde, sartu gura duten gazteen gainean, esan du herrian ez dagoela lokalik, eta daudenak denek erabili beharko litzuketela; baina gaineratu du orain dauden gazteak ez daudela prest lokalak konpartitzeko.

### HERRITARREN HITZA / Julen Arriolabengoa • Filologoa

## Ipiztiko Arriaga izeneko gurutzera

Euskal Herriko lurretara kristautasuna goiz samar iritsi bazen ere, IV. mendean gutxi gora behera, arazo handiak aurkitu zituen zabaltzeko momentuan. Esan daiteke IX. mendera arte ez zuela kristautasunak presentzia nabarmenik lortu gure hiri eta herri garrantzitsuenetan. Garai horietan Euskal Herriko eliza asko jauntxoan menpean egon ohi ziren, eta patronatu horren bitartez herritarrek ordaintzen zuten diezmoa edo hamarrena jauntxoaren eskuetan geratzen zen. Apezpikuek, jakina, Elizarentzat erreklamatzeko zituzten zerga horiek, eta egoera horretan makina bat gatazka gertatu omen zen jauntxoan eta Elizaren artean.

Gatazka horietako batek harreman zuzena du Aramaioko toki batekin, Ipiztiko Arriaga izeneko mendilepoarekin, hain zuzen. García Fernández Cachopín kronikariak dioenez, 968. urtean Ziortzako Andre Mariaren eliza Bolibarko muino batean eraiki zenean, Bolibar-Jauregi etxeke nagusia, Kontzalu Perez, lur haietako jauntxoa zen eta Ziortzako eliza ere bere menpean zuen. Eta gertatu omen zen Kala-urrako apezpikua Bizkaita joan zela, bertako foru eta legeei desafio eginez, elizen patronatua erreklamatzera. Batzar Nagusiek baiezkoa agindu bazioten ere, ez omen zuen oso harrera onik izan eta

azkar abiatu zen ihesi Arrazola inguruko mendietan zehar. Bolibar-Jauregi Kontzalu, ordea, mutil gazte eta sutua izaki, hainbat ahaide, adiskide eta menpeko lagun harturik, inguruko beste mutil ausart eta liskarzale askorekin batera, apezpikuaren atzetik abiatu omen zen arineketa bizian. Arrazolatik Aramaiorako igarobidean muga egiten duen lepoan atzeman omen zuten apezpikua, eta, bat ere gupidarik gabe, bertan hil zuten. Bere konpainiako gizon askok ere hantxe aurkitu zuten heriotza. Balentria honekin nahikoa izan ez, eta apezpikua igaro zen bideetako



"izena apezpiku hitzetik eratorria litzateke"

harri, lur eta belarrak bildu zituzten aitzur eta palaz, eta, bidean han-hemenka pilaturik, su eman zieten bide bazterreko zuhaitzekin batera. Gertatutakoaren berri izatean, Bizkaito Batzar Nagusiek Bolibar-Jauregi Kontzalu eta besteak erruduntzat jo eta, guztientzako eskarmentu modura, urkamen-dira kondenatu zituzten, bere ondasun guztiak kenduta. Bolibar-Jauregi etxea Ziortzako elizaren jabegora igaro zen horrela. Bitartean, Kontzaluk eta bere lagunak Frantziara egin omen zuten ihesi.

Gertakari hau oroitarazteko harrizko gurutze altu bat jaso omen zuten bertan, Ipiztiko Arriaga izenez ezagutzen zena. Kronikariak diotena aintzatzat hartuta, mendilepoaren izena apezpiku hitzetik eratorria litzateke.

Orixol Mendi Elkartek antolatuta, datorren asteburuan, eskiatzera joateko irteera egingo da Aramaiotik. Frantziako Luz Ardiden-era irteerago da irteera. Otsailaren 23an, goizeko lauretan irteerago da autobusa; jakina, domeka ere Luz Ardiden-en pasatzeke asmoarekin. 60 euro kostatuko da guztia (ia 10.000 pezetako horren barruan sartuta izango dira lo egitea, gosaria, forfaita, eskiak alokatzea eta autobusa. Hortaz, zapatuek eta domekako bazkariak berak eraman beharko dira. Baita zapatuko afaria ere.

### LABUR

#### Datorren asteburuan, eskiatzera

Izena emateko epea bidera zapatua, bukatuko da. Gure duenak Ibarako tabernetan eman beharko du izena.



# Lotsa etxean utzi, mozorroa jantzi eta herritar mordoa kalera irten da egunotan

UBANE MADERA

Aramaioarrei umorerik ez zaie falta jaiak ospatzeko orduan, eta hori berori egin zuten zapatuan eta martitzenean: mozorroa soinean jantzi eta kalera! Batzuek zirkoa ikusi ei zuten herriko kaleetan eta Karlos Argiñano ere gertu ibili ei zen bere eusko labeldun barazkiekin. Aramaioarrek bata zein bestea saritu zituzten zapatuko lehiaketan. Martitzenean, berriz, San Martin Eskolan izan zen jai: dantzaldia, aerobica, jolasak eta txokolatea. Ikusten den moduan, aurtengoz bapo eginda, datorren urtera arte agur esan behar aratusteei.



Jai giro aparta izan zuten martitzenean San Martin Eskolan.



Zezen bila ibili denik ere bada.



San Martin Eskolan, umeez dantzaldia, aerobica, jolasak eta txokolate jana izan zuten



Erdi lotsatuta, baina mozorroa erakusteko gertu izan da jendea.



Eta hara zer-nolako zirko bikaina aurkitu genuen kalean!


## BOTEPRONTOAN/ Jon Ortueta · Arriola auzoko alkatea

*“Haize txarrenak ez dira sartzen Arriolan, esaten dute gure auzoa gordeleku antzekoa dela”*

**A**rriola auzoa ezagutzeko aukera izan dugu oraingotan. Horretarako, ohi dugunez, auzo-alkatearekin berbetan izan gara. Jon Ortueta da hura, Laisterrena baserrikoa da, eta bigarren aldiz da auzo-alkate.

**Noiz arte alkate?**  
Orain dela 12 urte lehenengo aldiz, eta orain dela ia hiru urte bigarren aldiz. Urtebete pasatxo falta zait bukatzeko.  
**Zenbat lagun bizi zarete? Eta zenbat baserri daude?**  
19-20 bat lagun. Eta sei baserri egon izan dira beti. Orain dela hiruzpalau urte, beste bat berri zuten, eta orain beste bat egiten dabiltza.  
**Hortaz, hazten ari da auzoa?**  
Baserri bai, baina biztanlez ez.  
**Auzo-auzoa da Arriola?**

Arexolako auzo antzekoa da; eliza Arexolan dugu, jaiak ere haiekin egiten ditugu, santamainak, uztailaren 18an.  
**Klima mediterranearra ei duzue Arriolan?**  
Nahiko ezkutuan dago, baina, horrekin batera, toki argitsuan dago. Eta haize txarrenak ez dira sartzen, esaten dute gordeleku antzekoa dela. Dena dela, haizeak gogor jotzen duenean hona ere heltzen da...  
**Aska eta iturria ere badaude.**  
Bai. Eta erreka bi, alde bietan. Deba ibaiaren hasiera batzuketoz izango dira.  
**Badu ezaugarri berezirik?**  
Lehen, izan zuen argindarra lortzeko errota bat, baina dagoeneko ez dago ezer.  
**Orixolen eta Anbotoren babesan zaudete?**



Bai. Haiek Etxaguengo haitzak dira eta pare-parean ermita bat dago: Santikruz ermita. Arriolako eta Arexolako gazteok ekaineko lehenengo domekan hango eguna ospatzen dugu eta festa ederra izaten da, eguraldiak lagunduz gero.  
**Zer du faltan auzoak?**  
Saneamendua berritzeko proiektua dago; postontziak ere falta zaizkigu, baserrien izena egurrez ipintzeko asmoa dago...  
**Zer du kanpotarrarendako?**  
Toki lasai-lasaia da eta bide handia gainerako auzoetarako.  
**Enpresaria ere baduzue?**  
Bai, Bengoa. Orain dela sei bat urte, autobus handi bat ekarri zuten, eta harrezkero beste txiki bi ditu... baserritarra izateko nahiko mugimendu darabil.

### TELEFONO JAKINGARRIAK

#### OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

### AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30



## ERRETRATUZAHARRA

Maiteminduak  
Garagartzara bidean

**S**an Valentin eguna pasatu berri izanda, atal honetan ere maitemindutako bikoteak izan ditugu gogoan. Horretarako, 1941. urteko udara egin dugu salto. Orduantxe egin zuten irudiotako argazkia Teodoro Alonsok eta Felisa Ibañez de Opakua *Txomin Txiki*-k. Gure berriemaileak uste duenez, Garagartzara bidean dago aterata argazkia.

Urtebete lehenago ezagutu zuten elkar, Eskoriatzako sanpedrotan. Gero, 1940ko sanmigeletan, elkarrekin ibiltzen hasi ziren; eta 1942ko otsailaren 11n ezkondu ziren. Hortaz, datorren astelehenean, hilaren 11n, irudiko bikote horrek ezkondu zirela 60 urte beteko lituzke.

**Argazkia:** 'Txomin Txiki' familia  
**Informazioa:** 'Txomin Txiki' familia  
**Urtea:** 1941

Etxean duzun erretratu zaharren bat atal honetan ikusi gura izanez gero, ekar ezazu  
**ARRASATE PRESS**era edo  
deitu 943 71 25 11 telefonora.




## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Zarugalde  
kalea,  
hurbilagotik

**T**arte honetan argazki orokor asko atera ditugu. Horrelakoetan errazagoa izaten da gauzak zenbat aldatu diren ikustea, etxe eta paraje asko izaten ditugu-eta erreferentzia modura. Oraingoan, berriro ere Zarugaldera jo dugu, baina argazki honetan ez da ikuspegi orokorrik. Alde-antzez, batzuetan, elementu gutxi izanda, argiagotuz ikusten da gauzak zenbat aldatu diren.



**± 1955** Normalean herriak aurrera zelan egin duen ikusten dugu, baina oraingoan publizitatearen garapena nabarmentzen da.



**2002** Oraingo argazkian aldatu ez den gauza bakarra ezkerreko etxea dela esan genezake. Eta balkoia da horren erakusle garbiena.



## ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errabala 8. Tel.: 943 77 20 78  
Asteleheneetik egubakoitzera:  
10:00-13:00 eta 16:30-20:00

Osakidetzarekin eta Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez

**Oinaren azterketak:** tendinitisak, gerrialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.

**Umeak:** hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena egiteko.


**Matèria bigunen erabilera:** oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.

**CAD/CAM sistema:** Plantillen fabrikazioan (berekala ematen dira).  
**Neurrira eginiko oinetakoak.**  
**AEBetatik inportatua.**

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

*Aretz*  
Taberna

Markole, 5  
943 79 14 67



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE





# UGARTE

## A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Zuen  
zerbitzura!

San Juan, 1 A  
BERGARA  
Tel./ Faxe:  
943 76 54 91



## 02-03 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- Epea: 2000n eta 2001ean jaiotakoak  
Otsailaren 18tik martxoaren 1era  
2002an jaiotakoak  
Otsailaren 18tik martxoaren 29ra
- Non: UMEZAINZAN  
(San Andres 8 /San Josepe auzoa)  
Tel.: 943 77 20 25 /ext.:301

Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin  
nahi izanez gero, aurretik telefonoz abisatu.



Umezaintza



ARRASATEKO UDALA

Hezkuntza Saila ■





## X-TRAIL BERRIA

- ALL MODE 4X4 TRAKZIO
- SISTEMA ELEKTRONIKOA
- 4 AIRBAG
- ABS.EBD (BALAZTATZEAREN
- BANAKETA ELEKTRONIKOA)
- NISSAN BRAKE ASSIST.
- EPS+ (EGONKORTASUNAREN
- KONTROL ELEKTRONIKOA. GASOLINAKOAK BAKARRIK).
- 4 DISKOZKO BALAZTA.
- XXL EGUZKI-SABAI PANORAMIKOA.
- MALETATEGIA HANDIA DA ETA GARBI DAITEKE.
- BI MOTOR MODERNO:
- 2.2L COMMON.RAIL T-DIESEL
- INTERCOOLER 6 MARTXAKOA.
- 2.0L 16V., GASOLINA (MARTXAK
- ALDATZEKO ESKUZ EDO AUTOMATIKOKI)

-TREME LIFE



**23.594,00** €-tik  
aurrera\*

SEE THE CHANGE

**3** URTEKO  
BERMEA  
EDO 100.000 KM.

## ALDIBI AUTOAK, S.A.

Zigarrola Kalea, 1 - Tel. 943 71 20 02 - 20500 Arrasate